

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2009

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	8
Munduko ekonomiaren bilakaera	8
Analisia herrialdeka	11
Espainiako ekonomia	14
2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	16
2.1 EKOIZPEN ARLOAK	16
Sarrera	16
Lehen arloa	17
Industria	18
Eraikuntza	22
Zerbitzuak	23
2.2 ESKARIA	26
Sarrera	26
Gastua azken kontsumoan	27
Kapital eraketa gordina	29
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	30
2.3 LAN MERKATUA	36
2.4 PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	45
2.5 ARLO PUBLIKOA	52
2.6 FINANTZA ARLOA	56

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2007. urtean hasi zen motelaldia areagotu zen 2009. urtean eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) barne produktu gordina %3,3 gutxitu zen urteko batez bestean. Zenbateko hori eta ekonomia aurreratuen multzoak lortutakoa oso antzekoak dira eta ez dauka aurrekaririk Eustatek 1980-2009 epealdirako osatu duen serie historiko osoan. Beraz, garbi geratu da munduko ekonomia eremu guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan, eragina izan duen atzeraldi hau oso larria izan dela. EAeko barne eskariaren jaitsiera BPGrena baino are biziagoa izan da, baina azken emaitza leundua geratu zen kanpo arloaren ekarpen positiboari esker. Urteko datua oso negatiboa izan zen arren, hiruhilabetekako bilakaerak agerian uzten du tasa negatibo horiek 2009ko azken hiruhilekoan txikiagoak izan zirela.

EAeko eta munduko ekonomiaren hazkundera 1. irudia
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

EAEko ekonomiak gainontzeko herrialde garatuekin duen lotura estuaren ondorioz, kanpoan sortu ziren arazoak azkar hedatu ziren hemengo ekoizpen egiturara. Izan ere, AEBetan sortu zen finantza krisia, herrialde horretan bertan eta Europako beste batzuetan higiezin burbuila lehertu izana, ekonomia eragileen artean konfiantza galdu izana, berankortasunaren igoeragatik eta finantza erakundeen desorekengatik kreditu bat lortzea zailagoa izatea, eskariaren bat-

2009ko urteko txostena

bateko beherakada eta nazioarteko merkataritzaren hondoratzea dira munduko ekonomiak hamarkada batzuetako epealdian pairatu duen ekoizpen galerarik handienaren atzean dauden arrazoietako batzuk.

Hain zuzen ere, munduko ekonomiak %-0,6an kokatu zuen BPGren urte arteko aldakuntza tasa, ekonomia garatuek murrizketa sakona nozitu zutelako eta garapen bidean dauden herrialdeek hazkunde mugatua lortu zutelako. Zehazkiago, herrialde garatuek puntu bat eta erdia gainditzen zuen ekarpen negatiboa egin zioten munduko BPGri eta garapen bidean dauden ekonomiek aurreko urteko ekarpenaren erdira iristen ez zen emaitza lortu zuten. Herrialde multzo horren barruan, portaera ezberdina hauteman da Asiako ekonomietan, Txinak eta Indiak lidergoa dutelarik, oraindik oso hazkunde erritmo biziak lortu zituztelako, eta gainontzeko herrialdeetan, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso zituztelako, saltzen dituzten lehengaien prezioa erdira ere heltzen ez zen baliotara jaitsi zelako (Errusian gertatu zen bezala) edo atzeraldi global batean bezero nagusiek beraiek ekoizten dituzten produktuak erosteari utzi ziotelako (Mexikori gertatu zitzaionez).

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK 1. TAULA

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia garatuak	53,9	-3,2	-1,7	Garatu gabeak	46,1	2,4	1,1
AEB	20,5	-2,4	-0,5	Txina	12,5	8,7	1,1
Eurogunea	15,2	-4,1	-0,6	India	5,1	5,7	0,3
Japonia	6,0	-5,2	-0,3	Errusia	3,0	-7,9	-0,2
Erresuma Batua	3,1	-4,9	-0,2	Brasil	2,9	-0,2	0,0
Kanada	1,8	-2,6	0,0	Mexiko	2,1	-6,5	-0,1
Besteak	7,3	-1,1	-0,1	Besteak	20,5	0,2	0,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Oso deigarria da Txinaren ahalmena eremu garatuetako herrialdeak nozitzen zituzten arazoak saihesteko eta %8,7ko gehikuntza tasa bat lortzeko, aurreko urtean jaso zuena baino puntu bakar bat gutxiago delarik. Herrialde hori oso esportatzailea den arren, kanpo eskariaren ahultasunak hazkundera barne merkaturantz zuzentzera behartu zuen ekonomia. Ildo horretatik, Txinako gobernuak dirutza handia bideratu zuen biztanleen kontsumoa

areagotzeko eta azpiegitura egitasmo handiei ekiteko, kostaldeko eta barnealdeko probintzien garapena eta kohesioa areagotzeko.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Munduko ekonomia	4,9	4,5	5,1	5,2	3,0	-0,6
AEB	3,6	3,1	2,7	2,1	0,4	-2,4
Japonia	2,7	1,9	2,0	2,4	-1,2	-5,2
Txina	10,1	10,4	11,6	13,0	9,6	8,7
Europar Batasuna	2,7	2,2	3,4	3,1	0,9	-4,1
- Alemania	1,2	0,7	3,2	2,5	1,2	-5,0
- Frantzia	2,3	1,9	2,4	2,3	0,3	-2,2
- Erresuma Batua	3,0	2,2	2,9	2,6	0,5	-4,9
- Italia	1,5	0,7	2,0	1,5	-1,3	-5,0
- Espainia	3,3	3,6	4,0	3,6	0,9	-3,6
- EAE	3,7	4,0	4,4	4,2	1,9	-3,3

Iturria: NDF eta Eustat.

Garatutako herrialdeen artean, barne produktu gordinaren beherakadak orokorrak izan ziren. Herrialde bakoitzak ahultasuneko testuinguruari eman dion erantzuna erabakigarria izan da murrizketa hori leuntzeko orduan. Hain zuzen ere, AEBetan, bai moneta agintariak bai gobernuak diru merkeko politika eta zailtasunetan zeuden enpresa handiak erreskatatzeko politikak sustatu zituzten. Halaber, familien kontsumoa bultzatzeko neurriak hartu zituzten. Erantzun azkarrak eta eragiketa horietarako bideratu ziren funts handiek BPGren urteko jaitsiera mugatu zuten eta hazkunde tasa positiboak 2009ko azken laurdenean berreskuratzea lagundu zuten.

Jarduera ekonomikoaren narriadura askoz ere handiagoa izan da Europan herrialde estatubatuarrean baino, nahiz eta kontinente zaharreko lan merkatuaren okertzea horren larria ez zen izan, lanpostuen galera txikiagoa izan zelako eta langabezia tasa horrenbeste igo ez zelako. Eremuaren herrialde nagusien artean, barne produktu gordinak Alemanian, Italian eta Erresuma Batuan izan zuen beherakada bizia azpimarratu behar da, hiru herrialde horietan


2009ko urteko txostena

%5aren inguruko jaitsierak jaso zirelako. Aitzitik, Espainian eta, batez ere, Frantzian beherakadak ez ziren horren handiak.


Interes tasen, defizit publikoaren eta zor publikoaren bilakaera

2. irudia


Erreserba Federalaren esku-hartze tasa




EBZren esku-hartze tasa



Euroguneraren defizit publikoa (BPGren %)



Eurogunearen zor publikoa (BPGren %)



Iturria: Espainiako Bankua.

Europar, Europako Banku Zentrala beranduago hasi zen neurriak hartzen eta neurri horiek ez ziren Erreserba Federalekoak bezain garrantzitsuak izan, bere egiteko nagusia inflazioa kontrolatzea delako BPGren bilakaerari erreparatu gabe. Horiek horrela izanda, 2009ko

hasieran interes tasa dagoeneko bere balio txikienean (%0,25) zegoen Atlantikoaren mendebaldean, baina Europan oraindik %2,0an kokatua zen. Urtea amaitu zenerako ere bi eremuen arteko aldea oraindik 75 oinarri puntuetan zegoen. Beste aldetik, Europako herrialdeek aurrekontuen bitartez eman zuten bultzadak egonkortasunerako itunean zehaztu ziren mugen oso gaineratik dagoen maila batera igoarazi zuen defizit publikoa eta Eurogunearen zor publikoa BPGren %80ra hurbildu zen. Zenbateko publikoen narriadura hori da ekonomiaren susperraldiari mehatxu egiten dioten arrisku nagusietako bat.

Barne produktu gordina oso beherantz zihoan testuinguru horretan, EAEko ekonomiak %-3,3 murriztu zuen bere BPG, azken hamarkadetan bildu diren emaitzetan aurrekaririk ez duen emaitza negatibo bat jasoz. Narriadura barne eskarira mugatu zen, %4,0 jaitsi baitzen, kanpo saldoak bederatzi hamarreneko ekarpen positiboa egin ziolako BPGren gehikuntzari. Hala eta guztiz ere, adierazi behar da ekarpen horren jatorria inportazioen beherakadan datzala, esportazioak baino gehiago murriztu zirelako, barne eskariaren beraren ahultasunaren ondorioz.

Barne eskariaren osagaien artean, bereziki kapitaleko eraketa gordinak erakutsi zuen portaera etsigarriena, urte arteko jaitsiera %8,3ra iritsi zelako. Alde batetik, eraikuntzan eginiko inbertsioa etxegintzaren beherakadak baldintzatu zuen, saldu gabe zeuden etxebizitza amaituen stocka oso handia zen une batean. Beste aldetik, ekonomia eragileen artean hedatu zen konfiantza ezak, eskarien bat-bateko jaitsierak, kreditu bat lortzeko zailtasunak eta instalatuta dagoen baina erabiltzen ez den ekoizpen ahalmena gero eta handiagoa izateak egitasmo berriak abiaraztea galarazi zuten.

Ekonomiaren atzeraldiak azken kontsumoko gastua ere nabarmen kaltetu zuen, baina magnitude makroekonomiko hori osatzen duten bi osagaien portaera zeharo ezberdina izan zen. Izan ere, familien kontsumoa %3,8 murriztu zen eta kontsumo publikoa, ordea, areagotu. Kontsumo pribatuaren jaitsieraren atzean, hainbat arrazoi daude, hala nola lan merkatuaren bilakaera, lanpostu asko galdu zirelako, aktibo higiezinaren balio galera handia, ekonomia orokorraren eta enpleguaren etorkizunaz eragileek zuten mesfidantza gero eta handiagoa, eta zuhurtziaz jokatzeko nahiaren ondorioz aurrezteko joera areagotu izana, besteak beste. Arlo publikoak, berriz, kontsumoa sustatzeko ahaleginak egin zituen eta portaera hedakorra erakutsi zuen, baina aurreko hiru urteetako balioetara iritsi gabe.

2009ko urteko txostena

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Barneko azken kontsumoa	4,4	3,8	3,8	4,1	2,2	-2,4
Familien kontsumoko gastua	4,6	4,1	3,7	3,6	1,6	-3,8
Herri administrazioen kontsumoa	3,7	2,7	4,3	6,4	4,8	3,2
Kapital eraketa gordina	7,5	6,1	5,9	4,6	0,5	-8,3
Barne eskaria	5,2	4,4	4,4	4,3	1,8	-4,0
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-1,8	-0,7	-0,2	-0,3	0,0	0,9
Esportazioak	4,8	5,1	6,2	5,4	4,1	-14,4
Inportazioak	7,3	5,8	6,1	5,4	3,8	-14,7
BPG (m.p.)	3,7	4,0	4,4	4,2	1,9	-3,3
Lehen arloa	31,3	-13,8	-4,4	0,0	0,5	2,1
Industria	2,9	4,9	4,2	3,1	-0,5	-9,5
Eraikuntza	4,4	4,7	4,2	11,3	-1,1	-5,7
Zerbitzuak	3,3	3,5	4,5	4,1	3,5	-0,1
Merkatuko zerbitzuak	3,5	3,5	4,8	3,9	3,1	-1,2
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,0	3,4	3,3	4,8	5,6	4,9
Balio erantsi gordina	3,6	3,8	4,3	4,4	1,9	-3,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,5	5,0	4,8	2,8	1,8	-3,4

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena ehuneko puntutan.
Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, urte arteko beherakadarik biziena industriaren balio erantsiak jaso zuen, %10etik hurbil gutxitu baitzuen bere balioa. Eraikuntzak ere murrizketa garrantzitsua nozitu zuen aurreko urteko balioaren aldean. Aitzitik, zerbitzuen norabidea lauagoa izan zen eta hamarren bakar bat gutxitu zuen bere balio erantsia. Hala ere, arlo hori adarren helburuaren arabera aztertzen bada, agerian geratzen da merkaturatzen diren zerbitzuek ere eskariaren jaitsiera pairatu zutela eta arlo publikoari lotuta dauden zerbitzuak izan zirela emaitza positiboak eskaini zituztenak.

Barne produktu gordinaren ahultasuna lan merkatura hedatu zen eta enplegu asko galdu ziren (urte arteko tasa %-3,5 izan zen), gutxi gorabehera 36.300 lanpostu garbi desagertu zirelako. BPG eta enplegua antzeko tasan gutxitu zirenez, ekoizkortasunaren aldakuntza hiru hamarretara mugatu zen. Datu hori oso deigarria da laurogeita hamarretako lehen urteetan

bizi zen atzeraldian gertatu zenarekin alderatzen denean, garai hartan BPGren jaitsierarekin batera ekoizkortasuna hiru puntu baino gehiago areagotu zelako, urte horietan lanpostu asko galdu zirelako. Beste aldetik, enpleguaren galerak langabezia tasa %8,1era igoarazi zuen 2009an, BJAREN datuen arabera, azken sei urteko baliorik gorena delarik.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE27=100)	126,1	129,3	134,4	136,8	137,3	138,2
BPG erreala merkatu prezioetan	3,7	4,0	4,4	4,2	1,9	-3,3
Enplegua	2,8	2,2	2,2	2,8	1,0	-3,5
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	0,9	1,7	2,1	1,4	0,9	0,3
BPG nominala merkatu prezioetan	8,3	7,5	7,8	7,6	3,0	-3,2
BPGren deflatoea	4,4	3,4	3,3	3,2	1,1	0,0
KPI (urteko batez besteak)	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3
Soldata igoera	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7
Langabezia tasa	7,8	5,7	4,1	3,3	3,8	8,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

Eskariaren ahultasunak prezioen igoerak gutxitzeko balio izan zuen eta BPGren deflatoeak ia bere horretan geratu zen 2009an. Kontsumoko eta industriako prezioek ere ez zuten tentsiorik izan aztertzen ari den epealdian. Are gehiago, urtearen zati handi batean urte arteko tasa negatiboak jaso zituzten. Horren ondorioz, soldaten kostuek oso nabarmen moteldu zituzten beren igoera urteko batez bestean.

EAEko barne produktu gordina 2009an %3,3 murriztu bazen ere, biztanleko eta erosteko ahalmenaren parekotasuneko terminoetan Europar Batasuneko emaitzarekin alderatzen bada, EAERen aldeko beste urrats bat eman dela ondorioztatzen da, bere balioa europar batez bestearen %138aren zertxobait gainera kokatu baitaiteke. Alde batetik, BPG nominalaren jaitsiera Euskadin Batasunean baino askoz ere txikiagoa izan zen (%-4,1 eta %-5,6, hurrenez hurren) eta biztanleria murriztu zen Euskadin baina igo Europar. Orobat, kontsumoko prezioetan, erosteko parekotasuna kalkulatzeko oinarria baitira, ia ez zen alderik izan.

1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2009. urtea ekonomiaren jaitsiera handietako urtea izan zen eta horrela izango da gogoratua. 2007. urtearen erdialdean hasi zen eta 2008an ekonomia errelera igaro zen finantza krisiak bere goia ukitu zuen 2009ko lehen seihilekoan, munduko ekonomia nagusiak Bigarren Mundu Gerratik ikusi gabeak ziren maila batzuetan hondoratu zirenean. Ekonomia nagusietako eskariak gutxitu izanak eta finantza arloko kreditu murriztapenek merkataritza salerosketen beherakada mundu osora zabaldu zuten. Nazioarteko merkataritzaren geldialdia hain garrantzitsua izan zen ezen erositako eta saldutako salgaien bolumenak %-12,2 egin baitzuen atzera, 70 urtean baino gehiagoan inoiz izan den bortitzena baita.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK


5. TAULA

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Mundua	3,0	-0,6	6,0	2,4	---	---
ELGE	0,6	-3,5	3,7	0,5	5,9	8,2
AEB	0,4	-2,4	4,4	-0,8	5,8	9,3
Japonia	-1,2	-5,2	1,4	-1,4	4,0	5,1
EB 27	0,7	-4,2	3,7	1,0	7,0	8,9
Alemania	1,3	-5,0	2,8	0,2	7,3	7,5
Frantzia	0,4	-2,2	3,2	0,1	7,8	9,5
Erresuma Batua	0,5	-4,9	3,6	2,2	5,6	7,6
Italia	-1,3	-5,0	3,5	0,8	6,7	7,8
Espainia	0,9	-3,6	4,1	-0,3	11,3	18,0
Garapen bidean dauden herrialdeak	6,1	2,4	9,2	5,2	---	---
Asia	7,9	6,6	7,4	3,1	---	---
Txina	9,6	8,7	5,9	-0,7	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	4,2	-1,8	7,9	6,0	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	3,0	-3,7	8,0	4,7	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Herrialde guztiek, hala garatuek nola garatu gabeek, krisiaren eragina pairatu zuten, nahiz eta eremu batzuetan eta besteetan eragin hori oso bestelakoa izan zen. Izan ere, ekonomia aurreratuenek tamaina handiagoko beherakadak jaso zituzten zikloaren atzeraldian, garapen bidean dauden ekonomiak munduko hazkundearen bultzagile nagusiak izan ziren bitartean, AEBetako, Japoniako edo Alemaniako ekonomien txanda bereganatuz, azken horiek depresio sakonean sartuta zeudelako.

Barne produktu gordina 3. irudia
 Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: NDF eta Eurostat.

2009ko urteko txostena

Azaleratzen ari diren ekonomiek gutxiago nozitu zuten finantza krisia eta bertako gobernuek zerga eta moneta pizgarriak arrakasta handiz bideratu zituzten krisia hasi zenetik. Neurri horiei esker, talde horretako ekonomiek hobeto eutsi zioten atzeraldiari eta azkar suspertu ziren. Asian, Txinako ekonomia izan zen sendoena, %8,7ko hazkunde tasa lortuta, hots, 2008an lortutako emaitza baino puntu bakar bat gutxiago jaso zuen. India, berriz, %5,7 hazi zen. Errusiaren emaitzak ez ziren horren baikorrak izan, lehengaien merkatzeak eta merkataritzako krisi handiak %-7,9ko tasa eragin baitzuten bertako BPGn, azken hamabost urteko emaitzarik okerrenea delarik.

Ekonomia aurreratuen multzoak %-3,2ko jaitsiera izan zuen 2009an, gutxienez 30 urteko epealdian gertatu den handiena baita, gobernuek ekonomia suspertzeko egitasmoak bideratu zituzten arren. Zehazkiago adierazita, Europar Batasunak %-4,2 egin zuen atzera, Alemanian, Erresuma Batuan eta, neurri txikiagoan, Frantzia jarduerak izan zuen beherakada handiaren ondorioz. Japoniak agerian utzi zuen atzerriarekiko mendekotasuna eta %5,2 murriztu zuen bere barne produktu gordina. Paradoxikoki, AEBen BPGren atzerakada nahiko neurritsua izan zen eta %-2,4ko tasa jaso zuen. Datu hori are deigarriagoa da kontuan hartzen bada urtearen lehen erdian egoera oso korapilotsua eta zaila ikusten zela, hogeita hamarretako Depresio Handiarekin alderatua izatera iritsi baitzen.

Hala eta guztiz ere, eta garapen bidean dauden herrialdeek munduko ekonomian duten pisua gehitu zen arren, igoera hori ez zen nahiko izan ekonomia aurreratuen jaitsiera nabarmenak konpentsatzeko. Beraz, munduko ekonomiaren hazkunde tasa %-0,6an kokatu zen, NDFren lehen estimazioen arabera.

Inflazioaren bilakaera nabarmen moteldu zen eremu guztietan, kasu askotan tasa negatiboetara iritsi arte. Petrolioaren eta lehengaien merkatze garrantzitsuak beherantz bultzatu zituen energiako ekoizkinak eta elikagaiak biltzen dituzten atalen salneurriak. Orobat, familien azken kontsumoaren ahultasunak beherantz eraman zituen merkaturatzen diren zerbitzu askoren prezioak.

2009ko azken laurdenean, bazirudien atzeraldia gainditzen ari zela. Hala ere, susperraldiaren bizitasunaz dauden zalantzak oso nabarmenak dira. Jardueraren hobekuntza zerga eta moneta laguntzetan oinarrituta dago eta eztabaidaren muina nola eta noiz kendu behar direlakoan datza. Herrialde garatuetan, susperraldi luzea eta ahula aurreikusten da, hazkunde erritmoa krisiaren aurrean zegoena baino apalagoa izango delarik.

Analisisa herrialdeka

Txina %8,7 hazi zen 2009an, hots, aurreko urtean lortutakoa baino puntu bakar bat gutxiago eta azken hogeitaz urteko batez bestetik ez oso urrun. Kanpo arloaren atzerakadak, lehenengo aldiz hamarren batzuk kendu baitzizkion hazkunderari, ez zuen ilundu inbertsioaren eta kontsumo pribatuaren gorakada bizia, bi osagai horiek bi zenbakiko tasa lortu zutelako, banku maileguren eta kontsumitzaileentzako diru laguntzen bidez eginiko sustatze politikek bultzatuta. Izan ere, uste denaren kontra, kanpo merkataritzaren eragina Txinako hazkunderan ez da horren erabakigarria, zeren eta esportazioak BPGren heren bat diren arren, horietako ia erdia lehenago inportatutako ondasunen mihizatzearen ondorioa da. Aurrerapen horri esker, Asiako erraldoiak analisigileen eta gobernuaren beraren aurreikuspenak gainditu zituen, %8,0 baino tasa handiagorik ez baitzuen espero. Halaber, Japoniatik oso hurbil kokatu zen munduko bigarren ekonomia nagusia izateko lehian. KPI indizea tasa negatibotan egon zen urtearen zati handi batean eta horrela geratu zen islatuta urteko batez bestean. Hala ere, urte amaieran prezioek izan zuten gorakadak balizko deflazio baten arriskua uxatu zuen.

AEBe, krisiaren erdigunea izan zen herrialdeak, ez zuten jarduera beherakada handiegitik jaso urteko batez bestean eta %-2,4an utzi zuten emaitza, laugarren hiruhilabeteko gorakadari esker. Estatubatuar ekonomiak europarrak baino hobeto erantzun zuten krisiak sortutako arazoaren aurrean, bereziki finantza eta banku arloan onartutako neurrien ondorioz. Hala eta guztiz ere, barne eskariak oso behera egin zuten, gutxienez azken hogeita hamar urtean ikusi ez diren mailak jaso, neurri handi batean higiezinaren alorraren eta inbertsioaren beherakadengatik. Kanpo arloak bakarrik egin zion ekarpen positibo bat hazkunderari, baina inportazioak esportazioak baino gehiago murriztu zirelako. Lan merkatuak nozitu zituen kalte handienak, 14 milioi baino lagun gehiago langabezian zeudelako. Horren ondorioz, langabezia tasa %9,3ra igo zen, 1983. urtetik inoiz erregistratu den handiena baita. Azkenik, KPI indizeak behera egin zuen eta %-0,8an kokatu, jaitsiera handiena 1954tik.


Ekonomia krisiak modu bereziki gogorrean astindu zuen Japonia, bertako ekonomia %5,2 gutxitu baitzen, inbertsio pribatuaren murrizketa biziarengatik, kontsumo pribatuaren ahultasunarengatik eta kanpo arloarekiko duen mendekotasunarengatik, BPGren gehikuntzari puntu bat baino gehiago kendu ziolako. Halaber, deflazioaren mehatxua berriro agertu zen herrialde horretan, 1998 eta 2006 bitartean bizi zuen deflazio aldia bezalako beste epealdi batean murgiltzeko arriskua baitago. Langabezia tasa maila apaletan kokatu zen, puntu bat baino gehiago igo zen arren. Japoniak zorpetze maila altuenetako bat dauka eta, horren ondorioz, krisitik irtetea zaila izango da.

2009ko urteko txostena


BPGren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Europar Batasunean, herrialde bakoitzak atzeraldiari eman zion erantzuna ezberdina izan zen, jardueraren beherakada eta finantza publikoetako narriadura ere desberdinak izan zirelako. Izan ere, 2009. urtean eremu horretako BPGren aldakuntza tasa %-4,2 izan zen, goiko muturrean Poloniak lortutako %1,7, eremu osoan atzeralditik ihes egin duen herrialde bakarra baita, eta beheko muga herrialde baltikoak daudelarik, bi zenbakiko beherakadak jaso zituztelako. Orobat, aipagarriak dira Alemaniak, Erresuma Batuak, Irlandak eta Espainiak izan zituzten jaitsiera nabarmenak.

Alemaniak, bost urtez jarraian gehikuntza tasak lortu ondoren, Bigarren Mundu Gerratik inoiz jaso duen murrizketarik biziena pairatu zuen. Kanpo arloarekiko mendekotasun handiak kalte nabarmena egin zion ekonomia horri, esportazioak izugarri murriztu baitziren. Horri gehitu behar zaio kreditu bat lortzeko baldintzak gogortu izana, makinerian eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa nabarmen jaitsaraziz. Kontsumoa izan zen krisiari nolabaiteko erresistentzia erakutsi zion osagai bakarra, baina ez zen nahiko izan gainontzeko ahultasuna konpentsatzeko. Frantziaren beherakada zertxobait leunagoa izan zen, kanpo arloarekiko mendekotasuna horren handia ez delako. Barne kontsumoa egonkorrenetakoa izan zen arren, inbertsioa aurrekaririk gabeko maila batera jaitsi zen eta herrialde horretako BPG %-2,2ra eramanean, 1950etik jaso duen hirugarren jaitsiera eta larriena delarik.

Krisiak Erresuma Batuan erakutsi zuen gogortasuna bi arrazoitan oinarritzen da. Lehenengoa, higiezinaren merkatuaren narriadura sakona eta, bigarrena, finantza krisia, ordura arte horiek izan baitziren hazkundearen zutabe nagusiak. Atzeraldia areagotu zuten beste alderdi batzuk langabezia tasa altua eta familiek zein enpresek bizi duten zorpegabetzea dira, hazkundera eragotzi baitzuten eskariaren osagai gehienetan beherakada handienak jaso arte. Italian, ekonomiaren narriadura orokorra izan zen, zeren eta bai barne eskariak bai kanpo eskariak hamarrenak kendu baitzizkioten BPGri. Kontsumo publikoak bakarrik lortu zituen hazkunde positiboak, baina gehikuntza hori Europako herrialde nagusietako txikiena izan zen.

Lan merkatuaren okertzea izan zen hazkundearen galga nagusietako bat eta Europar Batasuneko langabezia tasa %8,9an kokatu zen. Alemaniak eta Frantziak azken urteetan langabezia kontrolatzeko bideratu zituzten kanpainak langabezia tasaren igoera moteltzeko baliagarriak izan ziren arren –Alemaniako langabezia tasa bi hamarren bakarrik igo zen 2008ko emaitzaren aldean-, herrialde baltikoetan eta, bereziki, Espainian langabeziak izan zuen hazkunde biziak –herrialde horretan langabe guztien %19 zeuden- 21,5 milioi lagunetara igoarazi zuen langabeen kopurua.

2009ko urteko txostena

Azkenik, inflazioak oso bestelako bilakaera erakutsi zuen. 2009. urtearen ezaugarri behinena lehengaien eta petrolioaren merkatzea izan zen. Krisiak okerrera egiten zuen eta eskariak urritzen ziren neurrian, prezioak apaldu egiten ziren, herrialde askotan eta urtearen zati handi batean tasa negatibotan kokatu arte

Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomia ez zen bilakaera orokorretik aldendu eta bere atzerakada Europako beste ekonomia batzuen bezain garrantzitsua ez bazen ere, herrialde horretan ere nozitutako narriadura oso nabarmena izan zen. Izan ere, kontsumo pribatuak eta kapitaleko eraketa gordinak aurrekaririk gabeko beherakadak jaso zituzten, eta kanpo eskariak BPGren hazkundeari ia hiru puntu ekarri bazizkion ere, urteko balantzean jarduera %3,6 murriztu zen, 2008an lortutako emaitzaren aldean lau puntu eta erdiko galera dagoelarik. Horrek guztiak Espainiako ekonomia 1993ko krisian bizitakoa baino egoera larriago batean kokatu zuen. Eskaintzaren aldetik, ekoizpen arlo guztiek jaitsiera biziak izan zituzten urteko batez bestean. Beraien artean, industria eta eraikuntza nabarmendu behar dira, bigarren urtez jarraian aldakuntza tasa negatiboak jaso ez ezik, aurreko urteko emaitza txarra are txarragoa egin zutelako baizik.

Espainiako ekonomiaren bilakaera ezkorra berehala hedatu zen lan merkatura. Hain zuzen ere, 2009an lanik gabeko pertsonen kopurua %60,2 igo zen 2008an jasotako balioen aldean. Hau da, milioi bat eta erdi baino lagun gehiago sartu ziren langabeen multzoan 2009. urtean, INEK argitaratzen duen biztanleria aktiboaren inkestaren datuen arabera. Guztira, langabeen kopurua 4.149.500 pertsonetara iritsi zen, lehenago ezagutu ziren langabezia maila oso nabarmen gaintutuz. Horren ondorioz langabezia tasa %18,0ra igo zen, Europar Batasun osoko gorena delarik. Ekonomia arloka, langabezia sektore guztietan igo zen, baina industriarena eta eraikuntzarena gehiago nabarmendu ziren.

Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indizea tasa negatibotan egon zen 2009ko zati handi batean, batez ere elikagaien eta lehengaien merkatzearen ondorioz. Zehazkiago adierazita, kontsumo prezioek 2009ko urtean %-0,3ko aldakuntza tasa izan zuten. Zortzi hilabetez jarraian jaitsierak jaso zituzten eta uztailean urte arteko aldakuntza tasa %-1,4ra iritsi zen, urte amaieran tasa positiboetara berriro itzultzeko, deflazioaldiaren mehatxua urrunduz.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007(B)	2008(A)	2009(A)
Azken kontsumoko gastua	4,7	4,5	4,0	4,1	0,9	-2,7
-Familien gastua kontsumoan	4,2	4,2	3,8	3,6	-0,6	-5,0
-Administrazioaren gastua kontsumoan	6,3	5,5	4,6	5,5	5,5	3,8
Kapital eraketa gordina	5,2	6,5	8,3	4,3	-3,9	---
-Kapital finkoaren eraketa gordina	5,1	7,0	7,2	4,6	-4,4	-15,3
Esportazioak	4,2	2,5	6,7	6,6	-1,0	-11,5
Inportazioak	9,6	7,7	10,2	8,0	-4,9	-17,9
BPG	3,3	3,6	4,0	3,6	0,9	-3,6
Nekazaritza eta arrantza	-2,3	-8,2	5,8	1,8	-0,8	-2,4
Energia	1,9	1,2	1,3	0,9	1,9	-8,2
Industria	0,7	1,1	1,9	0,9	-2,1	-14,7
Eraikuntza	5,1	5,2	4,7	2,3	-1,3	-6,3
Zerbitzuak	3,8	4,3	4,5	5,0	2,2	-1,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,4	6,1	3,7	1,0	-1,0	-2,0
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	3,1	3,4	3,6	2,8	4,1	-0,3
-Enplegua	2,7	3,2	3,2	2,9	-0,6	-6,7
-Administrazio publikoen defizita (BPG %a)	-0,2	1,1	1,8	2,2	-3,8	-9,5

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Azkenik, administrazio publikoek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eskaintako datuen arabera, 99.785 milioi euroko defizita izan zuten 2009. urtean, hots, BPGren %9,5. Krisia 2007an hasi zenetik, hori da bigarren saldo negatiboa eta neurri handi batean gobernuak ekonomiaren egoera txarrari aurre egiteko zergen esparruan hartu zituen neurrien ondorio zuzena da.

2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

2.1 Ekoizpen arloak

Sarrera

Hamabost urteko bizitasun handiaren ondoren, EAEko ekonomia azken urteetako historian aurrekaririk ez zuen krisi sakon batean murgildu zen eta hasieran aurreikusi zena baino atzeraldi larriago bati aurre egin behar izan zion. EAEko ekonomiaren bilakaerak beherakada sakoneko ibilbidea erakutsi zuen, bereziki urteko lehen hiru hiruhilabeteetan. Azken hiru hilabeteetan joera zertxobait leundu zen eta inflexiogune baten zantzuak erakutsi zituen BPGren bilakaeran. Horiek horrela, urte osorako estimatu den urte arteko tasa %-3,3an kokatu zen, EAEko barne produktu gordinaren estatistiketan inoiz kontabilizatu den emaitzarik negatiboena delarik. Termino nominaletan, hazkundera %-1,1ean kokatu zen.

Finantza sistemaren zurrumbiloez eta zorpetze maila egokitzeko beharrak enpresei eta kontsumitzaileei kreditua emateko baldintzak gogortu zituen. Horretaz gain, mesfidantza eta ziurgabetasuneko giroak ekonomia eragileak behartu zituen gastuak oso nabarmen egokitzera. Beharrezkoa zen beste doikuntza bat eta ekonomia osoaren narriaduraren erantzuleetako etxegintza izan zen. Larritasun aparteko egoera horren aurrean, gobernuek politika ekonomikoko ahalegin bereziak egin zituzten, nazioarteko mailan koordinatutako erantzun baten barruan. Hartu ziren neurri horien artean, finantza arloari diru laguntzak ematea, zerga bidezko pizgarriak ezartzea eta eskaria bultzatzeko erabakiak agertzen dira.

Eskaintzaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da ekoizpen arlo guztiek hazkunde tasa negatiboak izan zituztela, salbuespen bakarra lehen arloa zelarik, hori izan baitzen EAEko barne produktu gordinari ekarpen positibo bat egin zuen adar bakarra. Lehen arloak %2,1eko batez besteko hazkundera lortu zuen 2009an, harrigarria bada ere, azken bost urteko emaitzarik onena da hori. Industriari dagokionez, %-9,5eko aldakuntza tasa jaso zuen, ekonomiaren krisiak gehien kaltetu duen sektorea dela agerian utziz. Jarduera adar horrek jaso zuen narriadurak EAEko barne produktu gordinaren norabidea baldintzatu zuen. Barne eta kanpo eskarien murrizketa handiak industriaren hondoratzea eragin zuen, lehenago inoiz kontabilizatu ez ziren maila batzuetara jaitsaraziz. Eraikuntzan, berriz, jaso zen hazkunde tasak agerian uzten du higiezin arloko doikuntza saihestezina eta obra publikoaren ezintasuna etxegintzaren narriadura

garrantzitsua konpentsatzeko. Galgarik gabeko jaitsiera hura zerbitzuen hazkunde tasa ez hain negatiboak zertxobait leundu zuen, urte osoko batez bestean %-0,1eko tasa jaso zuelako. Urte arteko tasa negatibo baina txiki hori bi osagaien portaera kontrajarriaren ondorioa da, salmentarako ez diren zerbitzuek bilakaera bikaina izan zuten bitartean, merkaturatzen diren zerbitzuek okerrera egin zutelako.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009
Lehen arloa	0,5	2,1	-1,6	-3,9	2,1	6,2
Industria	-0,5	-9,5	-0,3	-6,7	-0,2	-3,0
Eraikuntza	-1,1	-5,7	-3,1	-9,9	2,1	4,7
Zerbitzuak	3,5	-0,1	2,2	-1,3	1,3	1,2
Guztira	1,9	-3,3	1,0	-3,5	0,9	0,2

Iturria: Eustat.

Lehen arloa

Lehen arloaren balio erantsi gordinak %-0,8ko atzerakada izan zuen 2009. urtean, unean uneko prezioetan, bolumeneko hazkundera %2,1 izan zelarik eta prezioen aldakuntza %3,0aren inguruan kokatu zelarik.

Nekazaritzaren adarrean, azken ekoizpenaren balioak behera egin zuen prezioen jaitsieraren ondorioz, ekoiztako unitateak gehiago izan ziren arren. Ekoizpen fisikoaren gehikuntza mahastietan eta baratzezaintzan gauzatu ziren, bereziki tomatean. Aitzitik, zerealen produkzioak beherakada garrantzitsua nozitu zuen. Prezioei dagokienez, gehikuntza nabarmenak jaso ziren azaren eta buru-azaren salneurrietan, eta tamaina handiko merkatzea patataren, ardoaren eta zerealen prezioetan.

Abeltzaintzaren alorrean, azken ekoizpenaren balioa gutxitu zen 2009an aurreko urteko emaitzaren aldean. Jaitsiera horren atzean, ekoizpenaren eta prezioen beherakada dago.

2009ko urteko txostena

Ekoizpenaren murrizketa behinena txerrikian gertatu zen eta behi-esneak izan zuen prezio jaitsiera handiena.

Azkenik, basogintzak mozketarako lizentzien gutxitzea ezagutu zuen, prezioak ere jaitsi zirelako. Mozketa baimenen beherakada nagusia intsinis pinua (*pinus radiata*) eta eukaliptoia ez diren egurrek osatzen duten kategorian gertatu zen, ondoren intsinis pinua kategoria zegoelarik. 2001. urtetik aurrera, beheranzko joera hauteman da prezioetan eta 2009. urtean joera hori are garbiagoa izan da.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

8. TAULA

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Nekazaritza eta arrantza	0,0	0,5	2,1	1,9	-10,8	-0,8

Iturria: Eustat.

Industria

2009. urtean, EAEko industriaren balio erantsiak %-9,5eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen, aurreko ekitaldien aldean bigarren sektoreak nozitu duen narriadura sakona agerian utziz. Jaitsiera hori azaltzen duten arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik, EAEko esportazioak erosten dituzten ekonomiek bizi zuten atzeraldia eta, beste aldetik, barne eskariaren ahultasun handia. Industria arloaz ekonomia garatu gehienetan argitaratu diren datuek gertakari hori baieztatzen dute. Are gehiago, krisiaren sakontasuna kontuan hartuta, EAEko industriaren emaitzak ez ziren inguruneko herrialdeenak bezain txarrak.

EAEko industriaren balio erantsia 2009ko hiruhilabeteen bidez aztertzen denean, agerian gelditzen da sektore horrek atzeraldi sakoneko bilakaera pairatu zuela eta urteko azken hiruhilabete arte itxaron zela nolabaiteko zuzenketa bat antzemateko. Izan ere, urte arteko aldakuntza tasa negatiboena urteko hirugarren hiruhilekoan jaso zen, harez geroztik hobekuntza txikia lortzeko. Hala ere, urte amaieran ere hazkunde tasa negatiboak jaso ziren. Portaera berdina erakutsi zuen EAEko industria produkzioaren indizeak ere. Hain zuzen ere,

Eustatek IPIrako estimatu zituen hazkunde tasak negatiboak eta bi zenbakikoak izan ziren 2009. urtean zehar eta azken hilabeteetan bakarrik galgatu zen beherakada hori eta suspertzeko lehen zantzu txikiak agertu ziren.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

9. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB-27	0,5	3,1	1,2	3,5	2,4	-0,7	-12,4
Eurogunea	0,2	2,8	1,3	3,5	2,3	-0,8	-13,3
Alemania	0,4	4,7	1,4	5,4	1,8	0,2	-17,2
Frantzia	1,8	1,1	1,4	0,0	0,7	-2,3	---
Erresuma Batua	-0,7	0,9	-1,3	0,0	0,3	-3,1	-10,2
Italia	-2,7	0,9	-0,2	3,1	1,9	-3,6	-15,1
Espainia	1,8	0,9	1,1	1,8	0,9	-1,5	-13,7
EAE	1,2	2,9	4,9	4,2	3,1	-0,5	-9,5
AEB (*)	1,3	2,5	3,3	2,3	1,5	-2,3	-9,8
Japonia (*)	3,3	4,7	1,4	4,4	2,8	-3,3	-21,8

(*)Industriaren ekoizpena.


Iturria: Eurostat eta Eustat (EAE).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera egiten den sailkapena aztertuta, EAeko IPIren portaera homogeneoa izan zen eta ekonomiaren narriadurak kategoria guztiei eragin zien. Kontsumo iraunkorreko ekoizpenaren, bitarteko ondasunen eta ekipamendurako ondasunen egoera bereziki larria izan zen, talde horiek guztiek %25aren inguruko jaitsierak izan zituztelako, eskura dauden estatistiken serietan aurrekaririk ez duten tasak baitira. Kontsumo iragankorreko ondasunen eta energiaren ekoizpenak ere beherakada nabarmenak izan zituzten, urteko batez bestean %-7,0ko tasa negatiboak jasota.


2009ko urteko txostena

Industria ekoizpenaren bilakaera **5. irudia**
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia




EAE



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

Industriaren adarren bilakaera aztertuta, Eustatek argitaratu dituen IPIren 16 jarduera atalen datuek agerian uzten dute 2009. urtean adar guztiek ekoizpena gutxitu zutela. Beherakada handienak EAEko egituran pisu txikia duten eremuetan gauzatu ziren, hala nola ehungintza eta jantzigintzan, larrugintzaren eta oinetakoen industrian, eta zurgintzan. Hala eta guztiz ere, industriaren egituran tamaina handiena duten adarrek, hots, metalurgiak eta artikulua metalikoeak eta makineriak, batez bestea baino tasa negatiboagoak jaso zituzten. Beste adar batzuek ere beren jarduera murriztu zuten, baina neurri txikiagoan. Adar hauen artean, janariaren industria, papergintza, edizioa eta grafikoak, eta energia elektrikoa aipatu behar dira.

EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera **6. irudia**
 Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

2009ko urteko txostena

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak enpresen iritziez osatzen duen inkestatik eratorritzen diren datuek EAEko industrian diharduten enpresarien igurikimen negatiboak agerian utzi zuten. Bai industria giroaren indizeak bai ekoizteko ahalmenaren erabileraren neurriak serie historikoko gutxieneko balioak markatu zituzten 2009. urtean zehar. Estatistika hauek guztiek bat egin zuten urteko azken hilabeteetan hobekuntza arina erakutsi zuten besteekin.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-REN BILAKAERA

10. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Industria	3,1	-0,5	-9,5	5,5	2,5	-8,6

Iturria: Eustat.

Eraikuntza

EAEko eraikuntzaren balio erantsiak beherakada bizia izan zuen 2009. urtean eta %-5,7ko aldakuntza tasa negatiboa jaso zuen. Ekonomiaren arlo hau da krisiaren eragin kaltegarria denbora gehiagoz pairatzen ari dena. Izan ere, orain arte zazpi hiruhilekoz jarraian hiruhilabete arteko aldakuntza tasa negatiboak kateatu ditu, hiruhilabeteakako kontu ekonomikoen arabera. Etxegintza bideratzen ari den doikuntza prozesua luzea eta urrats txikiak ematen gauzatzen ari da.

Eraikuntzarako argitaratzen diren adierazleek ere higiezinen merkatuan doikuntza bat bideratzen ari dela iradokitzen dute, baina prozesu hori oraindik luzea izan daitekeela adierazten dute. EAEn saldu gabe dauden etxebizitza berrien kopurua 22.000 unitatekoa zen 2009ko amaieran. Bizitegi eskariak pairatu duen galgalk eta higiezinen merkatuan pilatu den gehiegizko eskaintzak eragin dute etxebizitzaren bolumen handi hori. Eskariaren presioa moteldu zela agerian geratu zen Jabetza Erregistratzaileen Elkargoak etxebizitzaren salerosketez argitaratzen dituen datuen bilakaeran. Hain zuzen ere, 2009. urte osoan 15.000 salmenta egin ziren EAEn, aurreko urteko emaitzaren aldean %19,2ko jaitsiera delarik. Beste aldetik, Etxebizitza Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak amaitutako etxebizitzez

emandako datuek, bizitegien eskaintzaren hurbilpena baitira, %-4,5eko beherakada izan zuten. Saldu gabe dauden etxebizitzaren kopuru handi hori gutxitzeko ezinbestekoa da prezioetan zuzenketa garrantzitsu bat egitea. Zentzu horretan, EAEko etxebizitzaren metro karratuaren balioa, eurotan neurtuta, %-7,1 jaitsi zen 2009an.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009
BEG bolumen indizea	4,2	11,3	-1,1	-5,7
BEG uneko prezioak	8,4	17,7	2,9	-4,8
Deflatoarea	4,0	5,8	4,0	1,0
Enplegua	3,4	5,3	-3,1	-9,9
ekoizkortasuna	0,8	5,7	2,1	4,7
Etxebizitzaren salerosketak	-10,0	-12,5	-26,6	-19,2
Prezioa €/m ²	10,5	5,6	2,1	-7,1
Hasitako etxebizitzak	-9,2	15,4	-30,6	-43,0
Amaitutako etxebizitzak	-5,9	5,5	-8,7	-4,5
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-2,8	4,2	-35,3	-25,0

Iturria: Eustat, Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza), Etxebizitza Ministerioa eta Jabetza Erregistratzaileen Elkargoa.

Eraikuntzaren jarduerak behera egin zuela iradokitzen duen beste aldagai bat enpleguaren bilakaera da. Estatistika iturri guztien datuek arlo horren beheranzko joera bera erakutsi zuten. Esate baterako, Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoek %-9,9an estimatu zuten urte arteko aldakuntza tasa, hots, 2009. urtean zehar ia 10.000 lanpostu galdu ziren jarduera adar horretan.

Zerbitzuak

Zerbitzuen arloak nabarmen moteldu zuen hazkunde tasa Euskal Autonomia Erkidegoan 2009. urtean, %-0,1ean utzi arte. Beraz, jarduera sektore horrek hiru puntu eta erdi galdu zituen aurreko urteko urte arteko tasaren aldean. Emaitzak azpitaldeka aztertzen direnean,

2009ko urteko txostena

agerian geratzen da beherakada handiena merkaturatzen diren zerbitzuek jaso zutela, aldakuntza tasa %-1,2an kokatu baitzen, barne eskariaren amiltzearen ondorioz. Aitzitik, merkaturatzen ez diren zerbitzuek apaltzeko joera arina erakutsi zuten, baina urte arteko hazkunde tasa %4,9an kokatu zen oraindik, arlo publikoak zikloaren aurkako joera hedakorra hartu zuela islatuz.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009
BEG bolumenen indize kateatua	4,5	4,1	3,5	-0,1
BEG uneko prezioak	8,2	8,0	6,5	0,9
Deflatoea	3,5	3,7	2,9	1,0
Enplegua	3,1	3,2	2,2	-1,3
Itxurazko ekoizkortasuna	1,4	0,9	1,3	1,2
Barne merkataritzaren indizea	5,0	3,0	-4,6	-8,8
Bidaiarien gualdiak	11,5	2,6	-4,2	-1,2
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,92	1,89	1,88	1,88
Plazen betetze maila (chunekoa)	48,34	46,94	44,57	41,66

Iturria: Eustat.

Merkatura zuzentzen diren zerbitzuen jarduera adarraren narriadura islatuta geratu zen, EAEko kontu ekonomikoetatik eratorritzen diren balio erantsiaren datuetan ez ezik, 2009. urtean zehar sektoreaz argitaratu ziren adierazle ekonomikoetan ere. Merkataritzaren esparruaz, Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak beherakada esanguratsua nozitu zuen salmentetan, hala handizkako merkataritzan nola txikizkakoan. Txikizkako merkataritzaren barruan, jaitsiera orokorra izan zen, baina beherakada handiena elikagaien atalean gauzatu zen. Handizkako merkataritzan ere, murrizketa orokorra izan zen kategoría guztietan eta bereziki handia erdilantutako ekoizkinean, makineriaren eta ekipamendurako ondasunen salmentan. Familien eta enpresen kontsumoaren jaitsierak enplegu askoren galera ekarri zion EAEko merkataritza jarduerari.

Turismoari dagokionez, Eustatek establezimendu turistiko hartzaileez argitaratzen duen inkestak bizitasun galera erakutsi zuen arlo horretan 2009. urtean zehar. Hain zuzen ere,

gaualdien kopuruak, bidaiarien sarrerak eta establezimenduen betetze mailak atzerakada txikiak izan zituzten. Horiek horrela izanda, betetze maila plazaka %41,66 izan zen 2009ko batez besterako eta hoteletan sartu ziren bidaiarien kopurua gutxigatik ez zen bi milioi lagunetara iritsi. Azkenik, turisten batez besteko egonaldia 1,88 egunetan egonkortu zen.

Gaualdiez eta bidaiarien sarrerez ezagutarazi diren datuen arabera, estimatu ziren aldakuntza tasek beherakada islatzen dute aurreko urteko emaitzen aldean. Bizitasunaren galera atzerritik etorritako bisitarien multzoan gauzatu zen, Estatutik iritsitako turisten kopurua %1,0 igo zen bitartean. Ekonomiaren krisiaren ondorioz, oporretarako helmugatzat toki hurbilagoak aukeratu ziren. Hori horrela izanda, Aragoitik, Asturiasetik, Nafarroatik eta uharteetatik etorritako bisitarien kopurua oso nabarmen areagotu zen 2009. urtean zehar. Atzerriko bisitarien artean, belgikarren, holandarren eta japoniarren hazkundera azpimarratu behar da, euskal erkidegoa, turismorako helburu gisa, ekialdeko merkatuetan sartu dela adieraziz. Aurreko urteetan bezala, bidaiarien helburu nagusia, bai espainiarrena bai atzerritarrena, EAEko hiriburuak izan ziren berriro, kostaldeko eta barnealdeko udalen kaltetan. Dena dela, eta EAEko turismoaren jardura 2009an zertxobait moteldu bazen ere, urte horretan establezimendu turistikoaren kopurua igo zen eta hiru lurralde historikoetan handitu zen plazen eskaintza.

Garraioari dagokionez, Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak EAEko aireportuetako garraioaz eskaintzen dituen datuek narriadura bizia islatzen dute 2009. urtean zehar, hala hegazkinen kopuruan nola bidaiarien zein salgaien mugimenduetan, bai Estatu barruko bidaietan bai nazioarteko mugimenduetan. Gainontzeko garraiobideez dagoen informazioaren analisiak azpisektore horren bilakaera horren negatiboa ez zela izan iradokitzen du. Zehazkiago adierazita, 2009. urtean Euskotreneko zerbitzuak erabili zituzten bidaiarien kopuruak gora egin zuen, batez ere Gasteizeko tranbiarengatik. EAEko garraio sisteman dagoen beste azpiegitura garrantzitsu bat Bilboko metroa da, erabiltzaileen kopurua zertxobait areagotu baitzuen, 2. lerroa zabaldu delako, Ezkerraldeko ibilbidea Santurtzira arte osatuta gelditu delarik.

Merkaturatzen ez diren eta, neurri handi batean, arlo publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak %4,9 hazi ziren urte arteko tasan. Gehikuntza hori oso garrantzitsua da, baina ez da iristen aurreko urteko mailara, ordukoa zazpi hamarren handiagoa izan zelako.

2009ko urteko txostena

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA 13. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009
Zerbitzuak guztira	4,5	4,1	3,5	-0,1
Merkatuko zerbitzuak	4,8	3,9	3,1	-1,2
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	3,3	4,8	5,6	4,9

Iturria: Eustat.

2.2 Eskaria


Sarrera

EAEko ekonomiak 2009. urtean marraztu zuen beheranzko joera biziaren jatorria barne eskariaren narriadura bortitzean dago. Barne eskariaren osagai guztiek, salbuespen bakarra administrazio publikoen gastua delarik, beherakada garrantzitsuak izan zituzten aurreko urteetako emaitzen aldean. EAEko barne eskariaren bultzagile nagusia kontsumo publikoa izan zen, oso hazkunde esanguratsua lortu baitzuen, zikloaren norabidearen aurkako mugimendu garbia egiten. Ekonomia eragileen igurikimen ezkorrak eta finantza krisiaren ondorioz kreditu bat lortzeko orduan agertu ziren zailtasun handiak oztopo nagusiak izan ziren familiek kontsumoko egitasmo berriei eta enpresek inbertsiokoei ekiteko. Horiek horrela izanda, azken kontsumoan eginiko gastua %-2,4ko tasa batera jaitsi zen eta kapital eraketa gordina oso nabarmen murriztu zen, %-8,3ko urte arteko aldakuntza tasa batekin, aurreko urtekoa baino zortzi puntu inguru txikiagoa baita.


Barne produktu gordinari egin zitzaion ekarpen positiboa kanpo eskaritik bakarrik etorri zen, puntu bateko ekarpena, gutxi gorabehera, egin baitzion. Barne eskariaren ahultasunaren ondorioz eta nazioarteko ingurunea atzeraldi sakonean egonda, EAEko esportazioak eta inportazioak neurri handian gutxitu ziren.

Eskariaren osagaien hazkundera 7. irudia


Azken kontsumoa




Kapital eraketa gordina



Barne eskariaren ekarpena



Kanpo eskariaren ekarpena



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Gastua azken kontsumoan

Barne eskariaren osagaiak aztertuta, azken kontsumoko gastua %2,4 murriztu zen 2009. urtean zehar. Azpimarragarria da administrazio publikoetako gastuen %3,2ko gehikuntza, zikloaren aurkako izaten duen joerari eutsi baitzion, baina ez zen nahiko izan familien kontsumoaren beherakada bizia, %-3,8an kokatu baitzen, konpentsatzeko.

2009ko urteko txostena

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

14. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009
Soldatapekoen ordainketa	7,1	6,7	7,1	4,9	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7
Enplegua	2,2	2,2	2,8	1,0	-3,5
Pentsioen kopurua (*)	1,9	3,4	1,6	1,6	1,7
Batez besteko pentsioa (*)	5,3	4,4	4,6	6,6	4,5
PFEZren diru bilketa	11,5	10,3	13,6	4,5	-12,1
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)**)	2,3	3,4	4,4	4,8	1,6
KPI	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan Harremanen Kontseiluaren, INEren, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Kontsumitzaileek ekonomiaren atzeraldiaren aurrean erakutsi zuten mesfidantza izan zen kontsumoaren narriaduraren eragile nagusia. Beren igurikimenak hondatuz joan ziren errenta erabilgarria gutxitzen ari zelako eta krisiak lan merkatuan eragin larriak utzi zituelako, lanpostuen kopurua murriztuz. Zentzu horretan, eskariaren osagai horretaz argitaratu ziren adierazleen bilakaerak familien kontsumoaren gastua 2009. urtean murriztu zela adierazten dute. Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratzen duen EAEko kontsumitzailearen konfiantza indizeak beherakada handia jaso zuen, familien artean langabeziaren bilakaeraz zegoen kezka handiarengatik. Ziurgabetasuneko eszenategi horretan, ez zegoen asmo handirik erosketa handiak egiteko. Espainiako Bankuaren datuen arabera, finantza erakundeek eman zituzten banku kredituak %4,0 gutxitu ziren 2009an, aurreko urtean jasotako %6,2 positiboa baino askoz ere txikiagoa baita. Familiek kontsumoa finantzatzeko azken ekitaldietan pilatu zuten zorpetze handia zuzentzea erabaki zuten eta aurrezki tasa igo zuten.

Beste adierazle batzuek ere, hala nola txikizkako merkataritzaren indizeak eta azalera handietako salmentek, familien gastuaren murrizketa agerian utzi zuten, ziurgabetasuneko eta ezkortasuneko testuinguru batean. Ondasun iraunkorreko kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioak %1,7ko igoera izan zuen 2009an. Datu hori aurreko urtean jasotako %-22,6ko tasarekin alderatzen bada, begi bistakoa da ibilgailuen salmentak lortu zuen gorakada

garrantzitsua. Gobernuak urtean zehar ezarri zituen laguntzek adierazle horren goranzko joera lagundu zuten.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009
IPI kontsumo ondasunak. EAE	0,5	1,5	0,3	-7,3	-12,1
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	0,1	2,1	2,2	-4,6	-8,8
Automobilen matrikulazioa	-4,4	-2,8	-0,1	-22,6	1,7
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	0,2	5,0	3,0	-4,6	-8,8
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	1,6	1,1	1,8	-2,8	-4,0

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kapital eraketa gordina

Barne eskariaren beste osagai behinenak ere, hots, kapitaleko eraketa gordinak, tamaina handiko jaitsiera pairatu zuen 2009. urtean. Urte arteko aldakuntza tasa %-8,3an kokatu zen, serie historiko osoan inoizko mailarik okerrera delarik. Moteltzeko joera ekoizteko inbertsio pribatuaren osagai guztietara hedatu zen eta narriadura kapital eraketa gordinaz argitaratzen diren adierazleetan islatu zen.

Horiek horrela izanda, ekipamendurako ondasunen industria produkzioaren indizeak aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen urte osoan zehar. Are okerragoa izan zen ekipamendurako ondasunen inportazioen bilakaera, epealdi berean %-30,7ko tasa negatiboa jaso zutelako. Aldagai horrekin lotura duten beste adierazle batzuek, hala nola zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak, %40,0aren inguruko aldakuntza tasa izan zuten, bi urtez jarraian beherakada handiak kateatuz.

2009. urtean zehar, enpresariak ziurgabetasuneko eta ezkortasuneko testuinguru batean murgilduta egon ziren, finantza arloko zurrumbilo bizien ondoren, finantza erakundeek ezarri zituzten baldintza zurrunek giroa gehiago zailduz, inbertsioko egitasmo berriei ekiteko behar ziren kreditu lerroak ez baitziren erraz lortzen. Kanpo zein barne eskariaren ahultasunaren

2009ko urteko txostena

ondorioz, enpresariak bere horretan utzi zuten ekoizteko ahalmena, eskari zorroan hobekuntzarako joera bat hauteman arte.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2005	2006	2007	2008	2009
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	6,1	5,9	4,6	0,5	-8,3
IPI ekipamendurako ondasunak:	7,2	8,0	7,3	-2,3	-25,1
- IPI garraio materiala	4,8	7,0	8,6	2,7	-18,7
- IPI makineria	4,3	5,6	5,7	-5,5	-29,2
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	3,4	6,1	14,5	-2,2	-30,7
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	12,2	-5,5	5,4	-41,2	-39,6

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.


Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

2009. urtean, munduko ekonomiak oso bilakaera txarra erakutsi zuen industria ekoizpenean, enpleguan eta nazioarteko merkataritzan. Aurrekaririk gabeko jaitsiera hori bi faktorek eragin zuten. Alde batetik, munduko eskariaren bat-bateko murrizketa, ondasun mota guztietan eginiko gastua gutxitzea ekarri baitzuen. Beste aldetik, kreditu bat lortzeko zailtasunak, inbertsioaren jarduera maila are gehiago zaildu zutelako. Mundu Merkataritzaren Antolakundeak argitaratu dituen lehen estimazioen arabera, nazioarteko merkataritzaren bolumena %-12,2 murriztu zen urte horretan, ekonomiaren gelditzearen ondorioz. Jaitsiera hori 70 urte luzeetan izandako handiena da. Hain zuzen ere, munduko merkataritza beste hirutan jaitsi zen 1965etik: %-0,2 2001. urtean, %-2,0 1982an eta %-7,0 1975ean, baina inoiz ez 2009an bezain beste.


Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

8. irudia


ELGE




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Salmentak zerbait gehiago murriztu ziren herrialde aurreratuetan eta horrek, neurri batean, hazkundearen jaitsiera, konfiantzaren erabateko galera eta igurikimenean okertzea eragin zituen. Hain zuzen ere, Europaren salmentak, oro har, %-16,4 jaitsi ziren eta eremu horretako ekonomia nagusi guztietan esportazioen beherakadak bi zenbakikoak izan ziren. Guztien artean, Alemaniaren eta Frantziaren emaitzak azpimarratu behar dira, bertan saldutakoaren balioa %20,0aren inguruan gutxitu zelako. ELGEN parte hartzen duten gainontzeko herrialdeetan bilakaera are okerragoa izan zen. Japoniak atzerriko merkatuekiko duen mendekotasunak bereziki zaugarri bihurtu zuen krisiaren aurrean, bertan ekoiztako

2009ko urteko txostena

automobilen, telebisten eta teknologia goreneko ondasunen eskaria gutxituz. Japoniako esportazioek izan zuten beherakada (%-33,1) ez zen inoiz lehenago ezagutu, aurrekoetan ere esportazioen amiltzea gertatu bazen ere (1998-2001 epealdian, 1993an eta 1986-1987 urteetan ere esportazioak gutxitu ziren).

Garapen bidean dauden herrialdeek ez zuten horrenbeste murrizketarik jaso, baina haiek ere salmentak gutxitu zituzten. Hain zuzen ere, Txinako esportazioak %-16,0 jaitsi ziren eta Indiakoak, berriz, %-7,0aren inguruan. Edozein modutan, beherakada horiek herrialde aurreratuenak baino txikiagoak izan ziren.

Oro har, salgaien munduko merkataritzaren bolumena %-23,0 eta zerbitzuena %-13,0 murriztu zirela estimatu da. Zerbitzuen merkataritzak ez zuen, ordura arte, inoiz urte arteko aldakuntza tasa negatiboa jaso 1983. urtetik. 2010. urterako, aurreikuspenak baikorragoak dira eta merkataritza, batez beste, %9,5 areagotuko dela espero da.

EAEko ekonomiak bat egin zuen nazioarteko merkataritzak bizi zuen beherakada sakon horrekin. Hala esportazioak nola inportazioak modu bortitzean eta orokorrean murriztu ziren, merkataritzako bazkide nagusien eskari ezak eta salerosketak finantzatzeko murrizketek kaltetuta. Hain zuzen ere, EAEko esportazioak %-26,6 jaitsi ziren 2009an, 1988 eta 2008 bitartean urtero %10,6 hazi eta gero. Inportazioek ere doikuntza gogorra pairatu zuten eta ia %40ko beherakada izan zuten, azken hogeitun urtean etengabe igo eta gero, bai prezioan bai bolumenean. Hala eta guztiz ere, merkataritzaren saldoa azken hamar urteko handiena izan zen eta 2.300 milioi euroak gainditu zituen.

Energiaz bestelako merkataritzaren bilakaera oso antzekoa izan zen eta esportazioek eta inportazioek neurri bertsuko jaitsierak jaso zituzten. Harrigarria bada ere, energiako ondasunik gabeko saldoa serie historiko osoko altuena izan zen, energiarik gabeko salerosketak oso nabarmen gutxitu ziren arren, eta ia 5.300 milioi euroko superabiteria iritsi zen.

Esportazioak arantzel sekzioka aztertzen badira, eta serie historikoa osatzeari ekin ziotenetik lehen aldiz, atal guztiek beherakada nabarmenak izan zituzten. Ekonomiaren atzeraldiak makinak eta tresnak bezalako taldeetan ere eragin zuen, talde horrek azken hamazazpi urteetan hazkunde sendoa eta jarraitua erakutsi zuen arren. Inbertsioaren eta kontsumo pribatuaren beherakadak azaltzen du ekipamendurako ondasunek, hala garraio materialak nola makinak eta

tresnek, izan zuten jaitsiera sakona. Orobat esan daiteke metal arruntak eta beren manufakturak biltzen dituen atalaz, bereziki burdinarekin eta altzairuarekin lotura dutenez. Jaitsieraren garrantzia are handiagoa da kontuan hartzen bada bi talde horiek esportazio guztien ia %70 biltzen dutela.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2004	2005	2006	2007	2008	2009(*)	Milioi € 2009 (*)
Esportazioak							
Guztira	14,6	5,8	16,4	14,6	6,3	-26,6	14.606,2
Ez-energetikoak	13,5	5,4	14,1	14,7	4,9	-26,1	13.370,5
Energetikoak	35,5	12,2	51,4	12,5	22,6	-30,8	1.235,7
Inportazioak							
Guztira	19,8	15,6	20,2	8,2	6,4	-38,9	12.277,9
Ez-energetikoak	15,6	4,4	14,6	14,1	-0,8	-37,8	8.081,4
Energetikoak	35,8	52,1	32,9	-3,2	22,9	-40,9	4.196,6
Saldoa							
Guztira (milioi €)	935,6	-240,0	-830,7	170,1	161,4	2.328,3	2.328,3
Ez-energetikoak (milioi €)	3.106,6	3.375,9	3.810,3	4.452,4	5.429,1	5.289,1	5.289,1

(*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioak esportazioak baino are gehiago murriztu ziren, eta atal askotan beherakadak %30etik gorakoak izan ziren. Ekipamendurako ondasunek hazkunde negatiboak jaso zituzten bigarren urtez jarraian eta garraio materialaren erosketa %49 baino gehiago murriztu zen, automobilen salmenten bat-bateko jaitsieraren ondorioz, salmenta horiek %55 baino gehiago gutxitu zirelako. Metal arruntak eta beren manufakturak eta produktu mineralak eta energetikoak izeneko taldeak ere oso kaltetuta geratu dira, aurreko urteetan bi zenbakiko hazkunde tasa sendoak jasotzen bazituzten ere. Orain, berriz, %-53,7 eta %-40,9 gutxitu dira, hurrenez hurren, beren inportazioak.


Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Ekoizkin energetikoen esportazioak




Ekoizkin energetikoen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta manuflakturen esportazioak



Metal arrunten eta manuflakturen inportazioak



Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ikuspegi geografiko batetik, salmentak EAEko enpresek saltzen duten eremuetan gauzatu ziren. Europar Batasunean, energiak bestelako salmentek joera positiboa eta nahiko egonkorra izan zuten gutxienez 17 urteko epealdian, baina 2009an esportazioak %-32,6 murriztu ziren, Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan saldutakoak jaitsiera garrantzitsua izan zuelako, herrialde horiek biltzen baitute salmenta guztien ia %40, eta, neurri txikiagoan, Batasuneko kide berrietan nozitu den jaitsierarengatik, azken urteetan merkatu horretan ondo kokatuta egotea lortu bazuten ere. Garapen bidean dauden herrialdeetara bideratutako esportazioek ere beherakada nabarmenak izan zituzten, bereziki Txinara, Errusiara eta Brasilera zuzendutakoak. Izan ere, atzeraldiaren aurrean erakutsi zuten sendotasunaren ondorioz, salmentak merkatu horietara bideratu zitezkeela uste zen.

ENERGIAZ BESTELAKO MERKATARITZA HARREMANAK EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEAN

18. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi € 2009 (*)
	2004	2005	2006	2007	2008	2009	
Esportazioak							
ELGE	11,8	5,6	14,6	10,2	3,3	-30,5	9.924,9
Europako kide berriak	10,4	22,4	26,3	28,7	7,9	-27,1	674,6
Europar Batasuna 27	10,9	5,6	15,8	11,0	3,3	-32,6	8.518,2
Alemania	17,6	-0,8	23,5	15,6	3,6	-34,3	2.009,8
Frantzia	11,6	3,7	10,4	6,4	3,9	-30,4	2.294,9
Erresuma Batua	20,1	0,9	3,4	9,6	1,2	-28,8	751,2
Italia	0,0	23,5	24,8	-1,5	-4,2	-38,1	819,2
Errusia	84,4	-0,3	54,9	44,2	50,4	-47,8	109,4
Txina	28,1	17,7	28,1	20,6	33,6	-33,8	259,5
Inportazioak							
ELGE	10,5	2,2	11,4	13,6	-2,5	-34,5	6.286,4
Europako kide berriak	10,7	24,8	20,7	14,8	9,2	-28,9	294,0
Europar Batasuna 27	11,6	2,7	10,9	12,0	-3,1	-35,2	5.543,2
Alemania	18,6	2,2	3,3	35,9	-2,5	-39,0	1.476,7
Frantzia	12,7	-4,4	14,9	8,6	1,3	-37,5	1.189,2
Erresuma Batua	-0,6	-1,8	2,6	-14,3	-20,7	-46,5	338,6
Italia	13,8	6,0	9,6	13,1	-4,8	-26,9	876,3
Errusia	103,1	-3,4	17,5	6,9	5,5	-63,7	176,1
Txina	24,6	33,9	38,1	45,7	-2,3	-36,2	709,1

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaz bestelako inportazioen bilakaera antzekoa izan zen. Salmentekin gertatu zen bezala, erosketen beherakada orokorra izan zen eremu guztietan. Hain zuzen ere, hamasei urtean lehen aldiz energiakoak ez diren inportazioek horrelako beherakada orokorra jaso zuten, EAeko enpresen hornitzaileei horren zuzen eragin ziena. Azpimarratzekoa da Europako ohiko bazkideei, hots, Alemaniari, Erresuma Batuari eta, bereziki, Frantziari erositakoaren jaitsiera, 2008. urtean salmentak tasa positibotan mantentzea lortu zuten arren, 2009. urtean behera egin zuten eta modu bortitz batean gainera, %-37,0tik gorako murrizketa jaso zutelarik. Izan ere, horrelako tamaina duen eta eremu osora hedatua den beherakadarik ez zen lehenago ezagutu. ELGETik kanpo, jaitsierak eremu guztietara hedatu ziren.

2.3 Lan merkatua


Hamabost urtez enplegua etengabe sortu eta gero, 2009. urtean EAeko lan merkatuak oso jaitsiera nabarmena izan zuen landunen kopuruan. Ekonomiak nozitzen zituen zailtasunak modu saihestezin batean lanpostuen kopurura igaro ziren, 2006ko mailara itzuli baitziren. Halaber, enpleguaren galeraren ondorioz langabeziak gehikuntza garrantzitsua izan zuen eta langabezia tasak gora egin zuen %8aren zertxobait gainetik kokatu arte. Hala eta guztiz ere, lan merkatuaren doikuntza gogorrena urtearen erdialdeko hiruhilekoetan gauzatu zen, azken hiruhilekoan jaitsierak leundu zirelako.

Lan merkatua aztertzen duten estatistika iturri guztiak bat datoz 2009ko bilakaera oso negatiboa izan zela aurkezteko unean, ohiko iturri gehienek arabera, enpleguaren galera %3,5aren ingurukoa izan zelako (Gizarte Segurantzaren afiliazioak %3,4, kontu ekonomikoek %3,5 eta BJA inkestak %3,6), hots, urteko batez bestean 36.000 lanpostu galdu ziren, estatistika horien arabera. Zenbateko horretatik oso urrun dago BAI inkestak egin zuen estimazioa, enpleguaren galera %6,4ra igotzen baitu. Dena dela, aipatu diren lau estatistika horiek iradokitzen dute lanpostuen galera handiena urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan gertatu zela eta laugarren hiruhilekoan enpleguaren joera negatiboak leuntzeko zantzu garbiak erakutsi zituela. EAeko barne produktu gordinak 2009an izan zuen jaitsiera bizia (%-3,3) kontuan hartuta, enpleguaren galera, garrantzitsua izan zen arren, neurritsutzat hartu behar da, zeren eta enpresak ez ziren ekoizpenaren beherakadaz baliatu langileen kopuruaren bitartez lehiakortasuna irabazteko, laurogeietako eta laurogeita hamarretako lehen urteetan gertatu zen bezala, edo Estatuarentzat enpleguaz argitaratu diren datuetatik eratortzen den bezala.


Enpleguaren bilakaera EAEn
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Enpleguaren jaitsierak ez zuen eragin berezirik izan langile atzerritarren kolektiboan. Izan ere, Gizarte Segurantzako afiliatuen datuen arabera, atzerritar afiliatuen kopurua %3,0 jaitsi zen, afiliazio osoaren tasa baino zertxobait gutxiago bakarrik. Hala ere, atzerritarren beheranzko bilakaera biziagoa izan zen, aurreko bi urteetan beren gehikuntza tasak %15,4 gainditu zuelako. Bertoko eta atzerriko afiliatuen kopuruak berdin samar jaitsi zirenez, atzerritarren pisuak


2009ko urteko txostena

afiliazioaren guztizkoan ez zuen inolako aldakuntzarik izan aurreko urteko balioaren aldean eta %5,4an mantendu zen.


Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

11. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Enpleguaren analisisa sektoreka egiten denean, begi bistan geratzen da arlo guztiek, salbuespenik gabe, krisiaren eragina pairatu zutela. Kontu ekonomikoetako estimazioen arabera, industriak %6,7 murriztu zuen bere landunen kopurua eta eraikuntzak, berriz, urte arteko aldakuntza tasa negatiboenak (%-9,9) jaso zituen, higiezinaren arloak izan zituen arazoaren ondorioz, jarduera gelditu zutelako eta etxebizitzaren eskariaren eta eskaintzaren artean sortu zen desoreka prezioen bitartez doitzeko gai izan ez zelako. Azkenik, zerbitzuak ez ziren libre egon ekonomiaren arazoetatik, baina arlo horretako enplegu galera, ehunekotan neurtuta, aipatu diren beste sektoreena baino nabarmen txikiagoa izan zen, eta %-1,3ra mugatu. Administrazioak irakaskuntza edo osasun arloa bezalako jarduerari eman zien bultzadak merkatuko zerbitzuetan galdu ziren lanpostuak neurri batean leuntzeko balio izan zuen.

Ekoizpenaren eta enpleguaren urte arteko aldakuntza tasak oso antzekoak izan zirenez, ekoizkortasuneko irabaziak bi hamarrenekoak baino ez ziren izan, azken zazpi urteetako txikiak direlarik. Gogoratu behar da laurogeita hamarretako atzeraldian enpleguaren

galeraren ondorioz lortu ziren ekoizkortasun irabaziek %3 gairitu zutela, gaur eguneko enpresek materia horretan oso bestela jokatu dutela agerian utziz. Hala ere, emaitza globalean bi joera kontrajarri ezkututzen dira. Alde batetik, eraikuntzak, trebakuntza gutxiko langile asko dituen, irazpen masiboen formula aukeratu zuen eta ekoizkortasun irabazi nabarmenak lortu zituen (%4,7). Beste aldetik, industrian lan egiten duten pertsonak trebakuntza handiagokoak direnez, arlo horretako enpresek nahiago zuten langileak plantillan eustea, zikloaren norabide aldaketa gauzatu arte. Beraz, sektore horretako ekoizkortasunean hiru puntuko galera jaso zen.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN 19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Enplegua guztira:	2,8	2,2	2,2	2,8	1,0	-3,5
Ekoizkortasuna guztira:	0,9	1,8	2,1	1,4	0,9	0,2
- Enplegua lehen arloan	1,5	-5,1	-3,5	-4,2	-1,6	-3,9
- Ekoizkortasuna lehen arloan	29,4	-9,2	-0,9	4,4	2,1	6,2
- Enplegua industrian	0,9	-0,6	0,5	1,8	-0,3	-6,7
- Ekoizkortasuna industrian	2,0	5,5	3,7	1,3	-0,2	-3,0
- Enplegua eraikuntzan	4,9	3,7	3,4	5,3	-3,1	-9,9
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	-0,5	1,0	0,8	5,7	2,1	4,7
- Enplegua zerbitzuetan	3,4	3,5	3,1	3,2	2,2	-1,3
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	-0,1	0,0	1,4	0,9	1,3	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestak estimatu duen enpleguaren arabera, 2009. urtean galdu ziren lanpostu gehienak (%85) gizonak betetzen zituzten. Hain zuzen ere, azken urtebetean galdu ziren 35.700 lanpostuetatik, 30.300etan gizonak lan egiten zuten eta gainontzeko 5.400etan emakumeek. Beraz, emakumeen pisua enpleguaren egituraren berriro areagotu zen, azken urteetan ia bi puntu irabazi baititu, lanpostu guztien %44,2 bereganatzen dutelako. Enpleguaren galerak gizonengan eta emakumeengan eragin ezberdina izan duenez, gizonen enplegu tasa 3,7 puntu jaitsi zen eta %58,6an kokatu. Emakumeen galera, berriz, ez zen puntu batera heldu eta %43,9an kokatu zen, oraindik gizonen tasaren hamalau puntu beherago.

2009ko urteko txostena

Adinaren arabera, atzeraldiak eragin handiagoa izan zuen 25 urtetik beherako langileengan eta beren enplegu tasa 6,5 puntu jaitsi zen. Beste muturrean, 44 urtetik gorako landunen taldean eragina txikiagoa izan zen eta enplegu tasa puntu erdi bat bakarrik gutxitu zen. Desberdintasun horiek lotuta daude kolektibo bakoitzaren lan baldintzak arautzen dituen kontratu motarekin, gazteei bereziki aldi baterako kontratua egiten zaielako eta helduagoek kontratu finkoa dutelako. Hori horrela izanda eta espero zitekeenez, soldatapekoen artean galdu diren lanpostu gehienak aldi baterakoak ziren. Hain zuzen ere, izaera mugagabeko soldatapekoen kopurua %1,3 bakarrik murriztu zen bitartean, aldi baterako langileen kopurua %12,4 gutxitu zen. Bi bilakaera horien ondorioz, aldi baterako kontratuen pisua soldatapeko guztien kontratazioan txikiagoa da aurreko urteko balioaren aldean (2008ko %20,4tik 2009ko %18,6ra jaitsi da). Hala ere, tasa hori oraindik Europako batez bestetik (%13,4) oso gaitetik dago eta lanpostuak sortzen berriro hasten denean, aldibaterakotasuneko tasak Euskadin goranzko joera berreskuratuko duelako arriskua dago.



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua azkar galtzen den eta aldibaterakotasuneko tasa altuegia duen egoera horri (lan merkatuaren bitasunari) irtenbideak bilatze aldera, 2009. urtean bi proposamen ezberdin aurkeztu ziren, ondoko taulan modu laburrean bildu direnak.

Lan merkatuaren bi ikuspegi

Alde batetik, 100en taldeak Ekonomia Aplikatuko Azterlanen Fundazioaren (FEDEA) inguruko ekonomista batzuen proposamena bildu du, eta, beste aldetik, 700dik gora unibertsitate katedradunek, irakaslek eta profesionalek (ekonomistek, abokatuek, psikologoek eta soziologoek) sinatutako manifestu bat ezagutarazi zen.

Lehen ekimenak *Espanian lana suspertzeko proposamena* zuen izena eta, beste neurri batzuen artean, oraingoa baino irazpen merkeagoa izango duen kontratu mota bakarra eta irazpen zioak batzea proposatzen ditu, bi multzoko lan merkatuari amaiera emateko, eraginkortasun falta handia ekarri duelako.

Bigarren taldearen testuak *Enplegua, ekonomiaren hazkunde iraunkorraren oinarria* du izenburua eta enpleguaren egoera larria konpontzeko hartuko diren neurriak langileen esparrutik hasi beharrean, kreditu murrizketari galga jartzetik abiatu behar direla aldarrikatzen dute, krisitik irteteko arazo nagusiak finantza arloan daudelakoan.

100EN PROPOSAMENAK

1. Krisia dagoen bitartean, langabezia sarien gastua areagotu eta beraien iraupena luzatu.
2. Kontratu moten kopurua gutxitu eta kontratu mota bakar bat utzi.
3. Enpleguaren politika aktiboak trebakuntza gutxiagoko langileengan fokatu.
4. Irazpeneko zioak batu eta epaileen babesaren diskriminazioko irazpenetan bakarrik mantendu.
5. Enpleguko agentzia pribatuei lan bitartekaritzan parte hartzeko aukera eman.
6. Negoziazio kolektiboa aldatu berari hitzarmenek lehenatasuna izatea goragokoen aldean.

700EN PROPOSAMENAK

1. Langabeen gizarte babesaren areagotu eta denboran luzatu.
2. Gastu publikoaren igoera kontrolatu.
3. Industria, hezkuntza, energia eta ingurumen politikek protagonismo handiagoa izan.
4. Irazpeneko kasuetan epaileen babesaren kentzeko proposamena ez onartu.
5. Ekoizpen ereduaren aldatzera doazen lan merkatuaren erreformak onartu.
6. Barne malgutasuneko neurriak negoziazio kolektiboaren bitartez sustatu, aldi baterako kontratuak eta irazpenak erabili beharrean.

2009ko urteko txostena

EAEko enpresek eskariaren bat-bateko jaitsierari aurre egiteko gehien erabili zuten tresnetako bat lan egindako orduak doitzea izan zen. Hori dela eta, langile bakoitzak 2009an benetan egin zuen batez besteko lanaldia aurreko urtekoarena baino nabarmen laburragoa izan zen. Halaber, lan egindako aparteko orduen kopuruak oso behera egin zuen eta langile bakoitzak egin ez zituen orduen kopuruak aurreko urteetakoak gainditu zuen. Azken horien artean, oporretako eta jai egunetako orduak aurreko urteetakoak baino zertxobait gutxiago izan ziren, baina aldea ezartzen duen atala noizbehinkako arrazoiena da, enplegua erregulatzeko dosierren erabileraren ondorioz.

LANALDIAREN BILAKAERA

20. TAULA


Aste batean lan egindako orduak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Batez besteko lanaldia langile bakoitzeko	1.581,5	1.581,9	1.559,7	1.538,2	1.534,0	1.506,3
Aparteko orduak (*)	3.351,6	2.774,8	2.618,7	2.938,0	3.138,3	1.999,9
Huts egindako orduak langile bakoitzeko	277,3	273,9	285,2	276,7	277,3	288,4
-Oporrak eta jaiegunak	203,9	204,0	211,4	197,2	203,2	194,8
-Bestelako arrazoiak	73,4	70,0	74,0	79,4	74,0	93,6

(*) Aparteko ordu guztiak mila ordutan neurtuta.
Iturria: Lan eta Immigrazio Ministerioa.

2009. urtean, lan merkatuan parte hartzen zuten lagunen kopuruak zertxobait egin zuen gora, 16 urtetik gorako biztanleriaren %55,6ra iritsita. Hala ere, datu orokor horrek bi joera kontrajarri ezkututzen ditu genero bakoitzaren arabera, zeren eta gizonen partaidetza tasan puntu erdi bateko galera (%64,0) jaso zen bitartean, emakumeen tasa berriro igo baitzen, oraingo honetan ia puntu oso bateko gorakada lortuta (%47,6). Portaera ezberdin hori azaltzeko hainbat arrazoi daude, hala nola emakumeak lan merkatuan parte hartzeko bideratzen ari diren prozesua, oraindik amaitu gabea; emakumeek betetzen dituzten lanpostuak eskaintzen dituzten jardueretan (zerbitzuetako adar jakin batzuetan, alegia) krisiak eragin txikiagoa izatea; edo familiarren beste kide batzuek galdutako enpleguaren galera konpentsatzeko lan bila hastea. Analisia adinaren arabera egiten denean, ezaugarri berezi batzuk agertzen dira, esate baterako gazte askok lan merkatua utzi zutelaren talde horren partaidetza tasa %34,6tik %32,0ra murriztu zen-, lanpostu bat lortzeko zeuden zailtasunen ondorioz. Aitzitik, 25 urtetik gorako kolektiboetan gauzatu zen lehenago aipatu den parte hartzaile berrien gorakada.

Lanpostuak galdu zirenez eta enplegu bila lagun gehiago zegoenez, langabeziak gorakada nabarmena izan zuen. Hain zuzen ere, lanik gabeko pertsonen kopurua, urte arteko batez bestean, 84.200era iritsi zen BJA inkestaren arabera, aurreko urteko datua bikoiztuz. 45.600 langabe berri zenbatu ziren, horietatik 28.700 gizonak eta gainontzeko 16.900 emakumeak ziren. Banaketa hori oso lotuta dago industrian eta eraikuntzan lanpostu gehiago galdu izanarekin, bi arlo horietan batez ere gizonak kontratatu ohi direlako. Enplegu galera horren ondorioz, langabezia tasa %8,1era igo zen, aurreko urteetako datuen oso gainetik. Gizonen langabezia tasa %8,4an kokatu zen eta emakumeena, berriz, %7,8an.



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Lehenago aurreratu denez, 2009 urtea oso negatiboa izan zen enplegua erregulatzeko dossierren kopuruari dagokionez, guztira 2.565 dossier aurkeztu zirelako, 68.722 langilerengan eragina izan zutenak. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da lanaldia eteteko edo gutxitzeko dossier baten eraginpean zeuden 53.693 langileetatik %49,4 dagoeneko lanpostura itzuliak ziren. Zenbateko globala oso garrantzitsua izan bazen ere, kontratua bertan behera uzteko dossier baten eraginpean zeuden langileak 1.978 baino ez ziren izan. Horrek pentsarazten du dosierrak erabili zirela enpleguari eusteko eta ez enpresaren langileen kopurua murrizteko.

2009ko urteko txostena

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

21. TAULA

	2005	2006	2007	2008	2009	2010(*)
Dosierren kopurua	261	328	173	282	496	2.565
Eragindako langileak	5.614	6.158	3.338	4.815	12.794	68.722
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	25	41	4	17	108	1.170
- Behin-behineko etetea	3.478	4.714	1.704	3.856	11.216	65.574
- Kontratua amaitzekoa	2.111	1.403	1.630	942	1.470	1.978

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Azkenik, Enplegurako Estatuaren Zerbitzu Publikoak (SPEE) erregistratu zituen kontratuen kopuruak 2008ko jaitsiera areagotu zuen eta %-17,8ko beherakada jaso. Murrizketa garrantzitsua gertatu zen bai kontratu mugagabeetan (%-28,8) bai aldi baterakoetan (%-17,2). Lehenengoen artean, aipatzekoa da enplegua sustatzeko mugagabe bihurtuak asko (%-34,5) gutxitu zirela, eta bigarren taldean oso nabaria izan zen eraikuntzarekin duten lotura, atzeraldiak gehien zigortu duenetako bat delarik.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

22. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2009	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Guztira	652.115	6,4	1,9	3,1	4,1	-5,2	-17,8
Lanaldi osoko mugagabeak	18.481	-1,0	3,6	9,4	31,3	-8,7	-32,0
Obra edo zerbitzukoak	135.728	4,2	-3,6	-0,1	0,7	-11,4	-21,1
Abagunekoak	157.780	5,9	0,6	3,2	5,1	-9,4	-28,0
Lanaldi laburrekoak	223.807	9,5	8,4	2,9	3,3	-1,3	-9,7
Prestakuntzakoak (*)	4.833	6,4	-3,9	0,7	-4,2	-13,0	-37,7
Gainontzekoak	111.486	7,1	2,2	8,8	4,8	7,9	-6,6

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: INEM.

2.4 Prezioak, kostuak eta soldatak

Ekonomiaren atzeraldiak berehalako eragina izan zuen prezioen bilakaeran, oro har, aldakuntza tasa oso apalak jaso zituztelako eta baita jaitsierak ere urteko hainbat unetan. Moteltzeko joeraren arrazoi bat eskariaren jaitsieran datza, merkatu kuotarik ez galtzeko enpresak prezioak murriztera behartu zituelako. Baina kontuan hartu behar den beste arrazoi batek nazioarteko merkatuetan petrolio gordinak izan zuen balioan du jatorria, aurreko urtekoak baino salneurri askoz ere apalagoak izan zituelako, igurikimenek okerrera egin zituelako.

BPGren deflatorearen analisiak aurreko lerroaldean aipatutakoa baieztatzen du. Hain zuzen ere, adierazle horrek ez zuen ia inolako gehikuntzarik izan 2009. urtean, 2008an hasitako moteltzeari jarraipena emanez. Hala eta guztiz ere, portaera ezberdina hautematen da EAEko eragileek eskatzen dituzten produktuen jatorriaren arabera. Izan ere, barnean ekoiztako ondasunek eta zerbitzuek aurreko urtean baino zertxobait gutxiago igo zituzten beren salneurriak, baina inportatutako ekoizkinek oso nabarmen jaitsi zituzten beren prezioak. Euskadik inportatzen dituen produktuetako asko energia alorrekoak dira (petrolio eta gas naturala), nazioarteko merkatuetan merkeago saldu baitziren. Orobat, EAEko enpresek ere asko jaitsi zituzten beren salneurriak kanpoan saltzen jarraitu ahal izateko.

DEFLATOREEN BILAKAERA

23. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
BPGren deflatorea	4,4	3,4	3,3	3,2	1,1	0,0
Barne eskariaren deflatorea	3,7	3,6	3,8	2,9	1,2	1,0
Esportazioen deflatorea	5,7	2,1	3,8	3,5	2,5	-4,9
Inportazioen deflatorea	4,6	2,5	4,5	3,0	2,5	-3,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Energiaren salneurrien gehikuntzak kontsumoko prezioetan ere eragina izan zuen. Hain zuzen ere, KPIren urte arteko tasak 2008ko uztailean jaso zuen azken hamabost urteko baliorik gorena (%5,2), lehengaiak, oro har, eta petrolioak, zehazkiago, ezagutu zuten garestitze

2009ko urteko txostena

biziaren ondorioz. Une horretatik aurrera, eta ekonomia atzeraldiaren eragina hedatzen ari zen heinean, moteltzeko joerari ekin zion, hainbat hilabetetan aldakuntza tasa negatiboak erregistratu arte. Izan ere, 2009ko urtarrilean, KPIren urte arteko tasa dagoeneko %1,3an zegoen eta aurrera jarraitu zuen moteltzeko joera horretan, uztailean %-0,6an kokatu arte, adierazle horretako historian aurrekaririk gabeko datua delarik. Harez geroztik, inflazio tasak goranzko norabidea berreskuratu zuen eta azaroan balio positiboak markatu zituen berriro, abenduan %1,0an kokatzeko. Aurreko guztiaren ondorioz, urteko batez bestea %0,3 apal batean geratu zen.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2005	2006	2007	2008	2009	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3	0,3
Azpiko inflazioa (%83,7)	2,7	2,9	2,8	3,2	1,1	0,9
KPI Landutako elikagaiak (%12,9)	3,5	3,6	4,0	6,6	1,2	0,2
KPI Industriako ondasunak (%29,8)	0,7	1,4	0,7	0,6	-0,9	-0,3
KPI Zerbitzuak (%41,0)	3,9	3,7	3,9	3,9	2,5	1,0
Hondarreko inflazioa (%16,3)	6,3	6,1	3,0	8,5	-3,6	-0,6
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,0)	4,3	4,3	4,2	5,0	0,2	0,0
KPI Energia (%9,3)	8,4	7,9	1,9	11,6	-7,3	-0,6


Iturria: INE.

Aipatua izan denez, inflazioak 2009an erakutsi zuen maila apalaren arrazoi nagusietako bat lehengaiak eta petrolioak izan zuten merkatze garrantzitsua da, 2008ko uztailean 130 dolarretik gorako balio gorena markatu ondoren, urte bereko abenduan 40 dolarretara jaitsi baitzen, geroztik goranzko joera berreskuratzeko eta 2009ko amaieran 70 dolarren inguruan kokatzeko. Beraz, urteko batez bestean petrolio gordinaren salneurria %36 merkatu zen dolarretan eta %32 eurotan, Europako diruak balioa irabazi zuelako.

KPI indizea osatzen duten taldeen artean, petrolio gordinaren merkatzeak bereziki energiaren atalean eragin zuen, urteko batez bestean %7,3 merkatu baitzen. Industriako ondasunek ere beren prezioak gutxitu zituzten, baina askoz gutxiago (%-0,9), nazioarteko merkatuetan lehia estua zegoelako. 2009. urteko ezaugarria izan zen industria ondasunen eskariaren ahultasuna begi bistan uzten duen adibide ona automobilen salmentaren beherakada da, arlo horretako

enpresa asko egoera zailean kokatu baitziren, prezioak oso nabarmen gutxitu zituzten arren. Zerbitzuetan ere igarri zen prezioak moteltzeko behar hori, KPIren osagai inflaziogile nagusia izan bada ere. Urteko batez bestean, %2,5 igo zituzten salneurriak, aurreko urteko emaitza baino ia puntu bat eta erdi gutxiago.


KPIren bilakaera 14. irudia
Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: INE eta Eurostat.

Azpiko inflazioari dagokionez, adierazle horrek, inflazio orokorrak bezala, apaltzeko joera bizia erakutsi zuen eta bi puntu eta hamarren bat moteldu zuen 2008ko batez besteko emaitza (%1,1 eta %3,2, hurrenez hurren). Bilakaera horrek agerian uzten du prezioen moteltzearen arazoia ez zegoela mugatuta energiaren prezioetara eta inflazioaren gune egonkorrean, hots, energia ekoizkinak eta elikagai freskoak alboratzen dituen multzoan, eragina duten bestelako faktoreak ere egon zirela. Azpiko inflazioak EAEn erakutsi zuen moteltzea Europako herrialdeetako baina tamaina handiagokoa izan zen. Are gehiago, tabakoaren gainean ezarrita dagoen zerga bereziaren igoerak azpiko inflazioak bere urteko tasa are gehiago murriztea eragotzi zuen.

EAE




Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eustat.

Energiaren azken prezioek Euskadin beherakada handiagoa izateak eta kontsumoaren jaitsiera handiagoak Euroarekiko inflazio tartea, positiboa izan ohi zena, 2009ko hainbat hilabeteetan negatiboa izatea ahalbidetu zuen. Hala ere, KPIren urteko batez besteko emaitza bera (%0,3) jaso zen bi lurraldeetan, Europar Batasuneko datua (%1,0) nabarmen gorago geratu zelarik. Urte osoko batez bestea bera izan arren, alde handiak jaso ziren ekoizkin taldeen artean. Alde batetik, talde batzuetan prezioen igoerak handiagoak izan ziren Euskadin, hala nola lehenago aipatu den tabakoaren gaineko zergena, talde horretako urte arteko tasa Eurogunearena baino lau puntu luze gorago eraman zuena. Beste talde batzuetan ere prezioak askoz gehiago igo ziren Euskadin Eurogunean baino, esate baterako hezkuntzan eta etxebizitzan. Beste muturrean, garraioa, jantziak eta oinetakoak, eta medizina taldeetan prezioen igoerak handiagoak izan ziren Eurogunean. Zergek gasolinaren azken salneurrian duten pisu ezberdinak justifikatzen du petrolioaren prezioaren aldaketek neurri handiagotan edo txikiagotan nabaritzea KPIren bilakaeran. Eurogunean, zergen pisua gasolinaren prezioan handiagoa da eta horren ondorioz petrolioaren garestitzeak gorabehera txikiagoak ekartzen dizkio azken prezioari.



Iturria: INE eta Eurostat.

EAEko kontsumoko prezioen indizea osatzen duten taldeen analisi zehatz batek prezioen moteltze orokorraren ideia sendotzen du. Zehazkiago adierazita, indize orokorra osatzen duten hamabi taldeetatik bostek aurreko urteko salneurriak jaitsi zituzten. Bereziki garrantzitsuak izan ziren garraioak eta jantziak eta oinetakoak biltzen dituen taldeak prezioetan egin zuten doikuntza. Prezioak igo zituztenen artean, eta dagoeneko aipatua izan den tabakoaren garestitzea albo batean utzita, hezkuntza (%4,2) izan zen moteltzeko joera nagusitik gehien alden duen taldea. %2ko helburua gainditu zuten beste talde batzuk hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%2,4) eta bestelakoak (%2,5) izan ziren, nahiz eta urtean zehar jaso zituzten aldakuntza tasak gero eta apalagoak ziren. Gainontzeko taldeek bilakaera motelagoa erakutsi zuten, bereziki etxebizitzak, energiaren salneurrien merkatzeak talde hori ere lagundu zuelako.

2009ko urteko txostena

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Indize orokorra	3,0	3,3	3,4	2,8	4,1	0,3
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,3	3,6	4,1	3,8	6,3	-0,1
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,7	4,8	2,0	6,6	4,0	8,4
- Jantziak eta oinetakoak	0,7	0,7	1,1	1,4	0,7	-1,4
- Etxebizitza	4,2	5,0	6,3	3,6	6,4	1,9
- Etxeko hornidura	2,2	2,2	3,0	3,5	3,0	1,8
- Medikuntza	0,7	1,0	1,9	-0,5	-0,1	-0,2
- Garraioa	4,1	5,6	4,3	2,3	5,7	-5,3
- Komunikazioak	-1,1	-1,6	-1,3	0,2	0,0	-0,6
- Aisia eta kultura	-0,2	-0,3	0,4	-0,9	0,3	0,3
- Irakaskuntza	4,4	4,2	4,5	4,5	4,7	4,2
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,0	4,4	3,9	4,6	4,6	2,4
- Besteak	2,6	3,1	3,0	3,2	3,4	2,5

Iturria: INE.

Industriaren prezioek, IPRIren bitartez neurtuak, kontsumo prezioek baino moteltzeko joera biziagoa erakutsi zuten, 2008ko %6,6tik 2009ko %-6,2ra igaro baitziren urte arteko batez betean. Energiaren ekoizpena izan zen salneurrien beherakada gehien nozitu zuen atala, baina bitarteko ondasunek ere oso merkatze garrantzitsua izan zuten urte horretan, lehengaien prezioekin oso lotuta daudelako. Kontsumo ondasunek ez zuten beren prezioak jaitsi, baina oso moteltze nabarmena izan zuten eta urteko batez bestean urte arteko aldakuntza tasa %0,0an geratu zen, kontsumo iraunkorreko eta kontsumo iragankorreko prezioen bilakaera nahiko antzekoa izan zelarik. Prezioak igo zituzten bakarrak ekipamendurako ondasunak izan ziren, lehengaien garestitzeak talde horretan eragin txikiagoa izan zuelako eta hainbat adarretan ekoizteko prozesuak luzeagoak direlako, kontratuak sinatu zirenean krisiaren eragina oraindik horren sakona ez zelarik. Oro har, industriaren salneurriak ere neurri handiagoan moteldu ziren Euskadin Europar Batasunean baino.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA 26. TAULA


Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Indize orokorra	4,3	5,2	5,0	4,0	6,6	-6,2
- Kontsumoko ondasunak	1,9	1,7	2,9	4,1	4,4	0,0
- Kontsumo iraunkorrak	0,9	2,2	0,6	1,4	3,1	0,1
- Kontsumo iragankorrak	2,4	1,5	3,8	5,3	5,0	-0,1
- Ekipamendu ondasunak	1,0	1,8	0,9	3,9	3,0	1,4
- Bitarteko ondasunak	6,9	5,2	6,2	6,0	4,2	-7,5
- Energia	5,5	17,0	8,9	-1,4	20,0	-16,6

Iturria: Eustat.

Industria prezioen indizearen bilakaera 17. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Lan kostuak apaldu ziren 2009. urtean eta %2,8 baino ez ziren areagotu, 2008ko %4,7aren aldean. Hiruhilabetekako bilakaerak beheranzko joera garbia erakutsi zuen laugarren hiruhilekoa arte, epealdi horretan berriro igo baitziren aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean. Urte osoan, adierazi den bezala, portaera apala erakutsi zuten arren, kostuak kontsumo prezioak (%0,3) baino askoz ere gehiago hazi ziren, beste arrazoi batzuen artean, atzeraldietan

2009ko urteko txostena

galtzen diren lehen lanpostuak trebakuntza gutxiagoak eta soldata apalekoak direlako. Beraz, kostuen batez besteko gehikuntza, neurri handi batean, osaera baten ondorioa da, mota horretako enplegua galdu zelako eta ez, ordea, errenta errealak hobera egin zuelako.

Soldata kostuen norabide beretik doaz lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerak ere, aurreko urteetakoak baino zenbateko nabarmen txikiagoak erakutsi zituztelako (%2,7, aurreko urteko %5,0aren ondoren). Beraz, eta aurreko urteetan ez bezala, 2008an KPI indizeak izan zuen igoera ez zen osorik igaro 2009ko negoziatziora. Beste aldetik, ez da alde handirik hautematen urtean zehar sinatutako hitzarmenen eta urte batzuetarako lehenago sinatu zutenen artean, ezta ere sektoreko hitzarmenen eta enpresakoen artean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

27. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Indarrean dauden hitzarmenak	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0	2,7
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,8	2,8
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2	2,8
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1	2,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2.5 Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien eragiketa bateratuen aurrekontu egikaritzeak bilakaera negatiboa erakutsi zuen 2009. urtean, ekonomiaren krisiak eta zerga alorrean onartutako neurriek diru bilketaren beherakada nabarmena eragin zutelako, eta gastuek moteltzeko nolabaiteko joera erakutsi bazuten ere, berriro urte arteko aldakuntza tasa positiboak jaso zituztelako.

Hain zuzen ere, diru sarrera arruntak %10,9 murriztu ziren, zerga batzuetan, enpresei eta familiei denboraldi batez likidezia gehiago emate aldera, egin ziren kudeaketa aldaketen ondorioz eta arauen aldaketengatik. Hala eta guztiz ere, kapitaleko diru sarrerek oraindik

2009ko urteko txostena

aldakuntza tasa positiboak (%14,8) jaso zituzten, baina adierazi behar da oso pisu txikia dutela diru sarreraren guztizkoan.

Aitzitik, gastuek gora egin zuten, hala gastu arruntek (%2,8) nola kapitalekoek (%12,3). Gastu arrunten igoera langileen ordainketetan oinarritzen da eta kapitaleko gastuen gehikuntza udalek egin zituzten obrak finantzatzeko eman ziren mota guztietako diru laguntzen ondorio zuzena da

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK 28. TAULA

Mila euro

	2009	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2004	2005	2006	2007	2008	2009
1. SARRERA ARRUNTAK	12.357.545	9,9	11,2	11,2	11,5	-5,2	-10,9
2. GASTU ARRUNTAK	12.784.442	7,5	7,3	8,8	10,1	8,1	2,8
Langileen gastuak	2.283.431	3,5	5,5	5,7	8,1	7,7	6,3
Funtzionamenduko gastuak	3.841.018	6,7	7,0	10,6	12,6	11,6	10,2
Finantza gastuak	71.418	-1,2	-13,1	-13,5	-20,5	-5,3	0,8
Transferentzia arruntak	6.588.574	9,6	8,6	9,4	10,1	6,6	-2,1
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	-426.897	25,3	32,5	21,9	16,9	-54,1	-129,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	117.648	-34,4	13,8	-22,4	-33,2	54,4	14,8
5. KAPITALEKO GASTUAK	2.298.684	-2,7	2,2	11,1	11,1	15,0	12,3
Inbertsio errealak	979.402	-2,2	4,3	7,0	10,4	6,5	2,5
Kapitaleko transferentziak	1.319.282	-3,4	-0,1	15,7	11,8	23,7	20,9
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-2.181.036	-1,5	-1,2	-14,3	-14,0	-13,4	-12,1
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	-2.607.933	925,9	149,6	33,4	20,7	-137,1	-403,1

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila.

Diru bilketaren terminoetan, zerga bidezko sarrerak 10.792 milioi euroetara iritsi ziren 2009. urtean, hots, aurreko urtean bildutakoa baino 2.042 milioi gutxiago. Murrizketa horren arrazoiak ekonomia jardueraren okertzea eta atzeraldiaren kalteak leuntzeko eta familiei eta enpresei likidezia emateko onartu ziren zerga bidezko pizgarriak dira. Ehunekotan neurtuta, jaitsiera %15,9 izan zen, 2008. urtean jasotako %6,8ko beherakadari segida ematen baitio. Zerga nagusi guztiek parte hartu zuten beherakada horretan, bereziki sozietateen gaineko

2009ko urteko txostena

zergak (%-27,2) eta BEZek (%-13,0), baina azken hiruhilekoan diru bilketaren portaerak jaitsiera erritmoaren moteltze nabarmena erakutsi zuela adierazi behar da.

Zuzeneko zergek bilakaera okerreana erakutsi zuten, aurreko urtean baino %18,3 gutxiago bildu zutelako. Zerga multzo horren barruan, PFEZ zergak nabarmen nozitu zituen urtean zehar gertatu zen enpleguaren galera eta administrazioak landunei emandako diru laguntzak (400 euro langile bakoitzari). Aurrekoaren ondorioz, zerga horren diru bilketa 2008koa baino %12,1 txikiagoa izan zen. Zergaren atal guztiek, salbuespen bakarra kapital higiezinaren etekinak direlarik, urte arteko beherakadak jaso zituzten. Zehazkiago adierazita, lanaren eta lanbide jardueraren etekinek behera egin zuten, soldatapekoen enplegua gutxitu zelako eta atxiki beharreko soldata masa gutxiago hazi zelako, kapitaleko errenten atalean, kapital higigarriaren errentak murriztu ziren bitartean, dibidenduak eta bankuetako gordailuen interesak gutxitu zirelako.

Zuzeneko zergetan garrantzia duen beste figurak, hots, sozietateen gaineko zergak, emaitza negatiboena (%-27,2) erakutsi zuen bigarren urtez jarraian, kuota diferentzial garbiaren portaera txarraren ondorioz. Beherakada horren arrazoi nagusien artean, honako hauek aipatu behar dira: eraikuntza eta, neurri txikiagoan, industria arloetako enpresen emaitza arruntaren jaitsiera, finantza erakundeetako aparteko emaitzen murrizketa, zerga tipoen jaitsiera eta kontabilitateko plan berriari egokitze aldera kontabilitatez kanpoko doikuntzen eragin handiagoa.

Zeharkako zergei dagokienez, BEZek iragarpen ezkorrenak baieztatu zituen eta %-13,0ko tasa jaso zuen bertan kudeatutako atalean (%-29,6 doikuntzaren atalean). Hala eta guztiz ere, urte amaieran jaitsiera leuntzen ari zela hauteman zen, hirugarren hiruhilekoan beherakada %29 izan zelako. Jaitsiera hori familien gastua etxebizitzetan eta kontsumo pribatuan murriztu izanak eragin zuen bereziki, eta baita hilabetekako itzulpenaren sistema orokortzea eta atzerapenen bolumena igotzea ere.

Azkenik, zerga bereziek behera egin zuten bigarren urtez jarraian (%-0,3 2008an eta %-1,4 2009. urtean). Kontzeptu guztiek tasa negatiboak jaso zituzten, salbuespena garagardoaren kontsumoa zergapetzen duen zerga, hobekien portatu zena izan baitzen (%7,8), eta tabakoaren gaineko zerga (%0,5) izan zirelarik. Azken zerga horretaz adierazi behar da karga tasa 2009an batez beste %10 igo bazen ere, kontsumoaren jaitsiera hauteman zela, tabakoaren aurkako legeak gero eta gogorragoak direlako. Aitzitik, diru gehien biltzen duen zerga berezia, hots,

hidrokarburoen gainekoa, balio negatibotan kokatu zen, erregaien kontsumoa jaitsi zelako. Hala ere, azken hilabeteetan hoberantz egin zuen zertxobait, gasolinaren eta gasolioaren gaineko zergak igo zirelako.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

29. TAULA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2009	2004	2005	2006	2007	2008	2009
PFEZ	3.917.693	1,1	11,5	10,3	13,6	4,5	-12,1
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.167.053	4,0	8,2	8,7	7,6	7,0	-3,6
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	266.279	-4,8	17,3	13,7	56,2	31,6	-14,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.447	8,4	5,5	8,3	27,1	70,6	13,4
- Ondare irabazien atxikipenak	17.417	-18,6	53,5	35,7	90,2	-1,0	-56,3
- Profesionalen eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	162.667	1,6	2,5	5,9	4,0	-4,4	-6,4
- Kuota diferentzial garbia	-776.169	-23,0	12,9	3,7	27,8	-67,4	-68,5
Sozietateen gaineko zerga	1.231.686	9,7	26,4	17,5	20,2	-16,8	-27,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	266.279	-4,8	17,3	13,7	56,2	31,6	-14,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.447	8,4	5,5	8,3	27,1	70,6	13,4
- Ondare irabazien atxikipenak	17.417	-18,6	53,5	35,7	90,2	-1,0	-56,3
- Kuota diferentzial garbia	867.544	12,0	27,8	17,9	15,4	-26,0	-31,6
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	113.634	117,3	48,8	53,3	149,2	6,7	-39,4
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	80.099	-8,5	70,3	-3,5	-0,2	7,4	-2,1
Ondarearen gaineko zerga	49.645	-2,7	14,5	18,8	21,4	17,5	-72,6
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	5.392.758	3,4	16,4	12,7	17,2	-1,6	-18,3
BEZaren bertoko kudeaketa	2.759.294	15,1	23,7	16,5	5,7	-13,3	-13,0
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	152.236	21,2	10,1	19,7	1,1	-50,3	-17,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	95.206	0,5	2,9	18,4	-1,3	-14,3	-17,6
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	37.150	7,8	5,1	8,4	9,5	-36,1	-24,5
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.475.752	7,0	3,5	5,3	6,4	-0,3	-1,4
Hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	51.436	1,9	6,0	5,2	3,7	2,1	-3,1
Aseguru sarien gaineko zerga	72.921	7,2	9,6	1,4	8,6	-1,3	-5,5
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.643.994	12,1	15,5	13,2	5,4	-12,4	-9,8
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	100.914	-4,5	1,7	-1,6	14,3	-4,0	-11,2
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	10.137.666	7,3	15,8	12,8	11,4	-6,6	-14,6
BEZaren doikuntza	768.911	6,7	-2,3	-0,3	-2,7	-7,2	-29,6
Zerga berezian doikuntza	-114.501	29,1	17,0	-7,1	-90,8	-15,5	7,3
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	10.792.077	7,6	13,7	11,4	9,7	-6,8	-15,9

Iturria: Foru Aldundiak.

2.6 Finantza arloa

2009. urtean, merkatuek hobekuntza nabarmena erakutsi zuten 2008ko udazkenean hauteman zen gehiegizko tentsioaren aldean. Une hartan, finantza sistema osoa mehatxupear zegoen, hegazkortasunaren eta arriskuaren adierazleak muturreko balioetan zeudelarik. Likideziaren tentsioak laxatu izanak eta arriskuak hartzeko beldurra leundu izanak nolabaiteko lasaitasuna ekarri zieten merkatuei. Hala eta guztiz ere, finantzaziorako baldintzek murriztaileak izaten jarraitu zuten, arrisku sariak oso altuak eta burtsek ezegonkortasuneko aldiak nozitzen segitu zuten.


Finantza merkatuen nolabaiteko hobekuntza hori erakunde eta herrialde nagusiek eman zuten erantzun irmo eta koordinatuaren ondorioz iritsi zen, 2009. urtean zehar hainbat ekintza onartu baitzituzten ekonomiaren narriadura gelditzeko eta finantza sistemari laguntza emateko. Ekintza horien artean, G20k apirilean antolatu zuen bilera nabarmendu behar da, bilera horretan ekonomian dolar kopuru handi bat sartzea erabaki zelako, kreditua, hazkundera eta enplegua lehengoratzeko.

Erabaki horien ildotik, banku zentral nagusiek Bigarren Mundu Gerratik ezezagunak ziren maila batzuetara jaitsi zituzten interes tasak. Hori horrela izanda, AEBetan, Erresuma Batuan eta Japonian diruaren prezio ofiziala hutsala zen, eta Euroguneak %1,0ra merkatu zuen, eremu hori 1999. urtean sortu zenetik inoizko baliorik apalena delarik. Halaber, ohiko eta ezohiko laguntzen sorta zabal bat jarri zuten martxan, finantza sisteman likidezia gehiago sartzeko. Neurri horien artean, zor-agirien eta altxorraren bonuen jaulkipena eta berrerozteko zedulen ematea aipatu behar dira.

Hala eta guztiz ere, eta erakundeek eta agintariek egin zituzten ahaleginak oso handiak izan ziren arren, neurri eta baliabide horiek eragin txikia izan zuten ekonomia errealean, ekonomia jardueraren beherakadak eta langabeziaren etengabeko igoerak kredituaren hazkundera galgatu zutelako. Horietaz gain, finantza sistema sustatzeko eta laguntzeko bideratu ziren egitasmoek eta diru bilketaren beherakadak zerga balantzak desorekatu zituzten. Hori dela eta, AEBek, Japoniak eta Erresuma Batuak BPGren %10,0aren inguruko defizit publikoa jaso zuten 2009. urtean. Europar Batasunean, defizita txikiagoa izan zen arren (BPGren %6,3), alde handiak egon ziren herrialde batzuen eta besteen artean, zeren eta Espainia, Irlanda edo Grezia bezalako ekonomietan defizitak %10 gainditu baitzuen.

2009ko azken hilabeteetan eta 2010eko lehenetan, ekonomia jardueran hobekuntzako lehen zantzu garbiak hauteman ziren eta baita nolabaiteko egonkortasuna ere finantza merkatuetan. Horren ondorioz, banku zentral nagusietako batzuek aparteko neurri batzuk urratsez urrats kentzea erabaki zuten, kontu publikoak onbideratzeko edo, gutxienez, defizit maila ez areagotzeko.

Banku zentraletako erreferentzia tasak **18. irudia**
Ehunekoak



Iturria: Espainiako Bankua.


2009ko urteko txostena

2009. urtean, arriskuari beldur gutxiago zitzaionez eta hainbat herrialdek dolarraren papera erreserba-diru gisa zalantzan jarri zutenez, euroak balioa irabazi zuen gainontzeko diruen aldean, bereziki dolarraren aldean, %10 irabazi baitzuen. Libera esterlinarekiko ibilbidea ere goranzkoa izan zen. Hain zuzen, urte hasieratik Erresuma Batuko ekonomiaren eta bertako finantza sistemaren narriadurak libera gutxieneko balioetara eraman zuen eta urtean zehar zenbait aldiz euroarekiko paritatara asko hurbildu zen.


EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

19. irudia


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena



Iturria: Espainiako Bankua.

Yena izan zen europar diruaren aldean balioa irabazi zuen bakarretakoa. 2001 eta 2006 urteen bitartean, Japoniako banku zentralak epe laburreko interes tasa zerotik oso hurbil mantendu zuen eta horrek *carry trade* eragiketak sustatu zituen. Eragiketa horien bitartez, inbertitzaileek irabazi handiak lortzen dituzte zorrak yenetan hartuz eta gero etekin handiagoa duten aktiboak beste txanponetan erosiz. Merkatuen beherakadak, ekonomia krisiaren ondorioz, espekulatzaileak behartu zituen aktibo horiek (gehienak eurotan eta dolarretan baitzeuden) saltzera galerak murrizteko eta, aldi berean, yenak erostera maileguan ordaintzeko, yenaren balioa igoaraziz. Beste aldetik, billete berdearen ahultasunak yenaren balioa indartu zuen aktibo egonkor gisa, eta dolar baten truke 86,76 yen ordaintzera iritsi zen, 1995etik balio gorena baita.

Euroak gainontzeko dibisa nagusien aldean 2009an izan zuen batez besteko kotizazioak aurreko urtekoa baino truke tasa ahulagoa erakutsi zuen, Euroguneak finantza krisiaren hasieran sendotasuna erakutsi zuelako eta 2008ko lehen hiruhilekoetan inoizko baliorik gorena lortu zuelako, nahiz eta ondorengo hiruhilekoetan ahultasuneko prozesu batean murgildu zen. 2009. urteko lehen hilabeteetatik, euroak balioa irabazi zuen berriro gainontzeko dibisa nagusien aldean, baina 2008an izan zituen balio altuetara inoiz itzuli gabe.

Finantza arloaren kaudimenaz agertu ziren zalantza handiek, arlo publikoak enpresa askoren erreskatea –AIG, Citi eta Bank of America, besteak beste- behartu baitzuen, eta ekonomiaren datu negatiboek 2009ko lehen hilabeteetako egoera nabarmen korapilatu zuten. Une horietan burtsek %-25 eta %-30 egin zuten behera, gutxieneko balioak martxoak jaso arte. Harez geroztik, susperraldi biziari ekin zioten eta %50 eta %80ko balio irabaziak lortu zituzten, moneta agintariek ekonomia berpizteko bideratu zituzten neurri eta egitasmoei esker. Munduko burtsa nagusien urteko balantzean %20tik gorako hazkundea dago. Garapen bidean dauden herrialdeetan, zorpetze maila txikiagoa zenez eta finantza arloaren arazoez gutxiago kaltetu zituztenez, erabakiak hartzeko aukera gehiago zegoen eta eremu horretako indize gehienek %30etik gorako irabaziak lortu zituzten.


Errenta aldakorreko merkatuek balio asko irabazi zuten arren eta maila altuetara itzuli baziren ere, ezinezkoa izan zen krisiaren hasieratik galdu zen finantza aberastasun guztia berreskuratzea eta burtsek 2008ko batez besteko kotizazioaren %25 beherago kokatu ziren. Esate baterako, Dow Jones indizeak bere baliorik gorena 2007ko urrian lortu zuen, 14.164,5 puntuetara iritsita. Urte amaieran burtsek izan zuten gorakada biziaren ondoren, indize hori aurreko hedaldiaren gehienezko balioen %40,6 beherago zegoen oraindik.

2009ko urteko txostena

Bankuen arteko interes tasek, berriz, moteltzeko joerari jarraipena eman zioten. EBZk emandako likidezia apartak eta esku-hartzeko interes tasa apalek Euroguneko banku arteko merkatuaren inoizko baliorik apalenak ekarri zituzten. Hain zuzen ere, hiru hilabeterako euriborra %1,23an kokatu zen 2009ko batez bestean, bigarren seihileko osoan %1aren azpitik egon zelarik. Urtebete baterako euriborrak, berriz, %1,62ko batez bestea markatu zuen. Urtebete bateko epe laburrean, hipoteketarako erabiltzen den erreferentziak inoizko baliorik gorena (%5,5) markatetik (2008ko urrian jaso zuen) txikienera (%1,23) jasotzera igaro zen, horixe baita 1998an sortu zenetik izan den apalena.

Urte baterako euriborraren bilakaera

20. irudia




Iturria: Espainiako Hipoteka Elkartea.

Azken urtean euriborra lau puntu baino gehiago jaitsi zen arren, murrizketa hori ez zen osorik iritsi kontsumitzaileen interes tasetara. Izan ere, ordaintzen ez ziren efektuak igo zirenez, banku erakundeek maileguren diferentzialak areagotu zituzten eta arlo pribatuari ematen zioten finantzaziorako irizpideak gogortu zituzten. Horri erantsi behar zaio aurreko hedatze aldian metatu zen zorpetze maila altua eta langabeziaren igoera. Aurreko guztiaren ondorioz, kredituaren murrizketa biziagotu zen.

Hain zuzen ere, kreditu pribatuak, krisia gertatu baino lehen bi zenbakiko hazkundera jaso baitzuten, %-5,0 murriztu ziren 2009an, hogeita bost urteko epean izan den lehen beherakada baita. Jaitsiera horrek batez ere hipoteka maileguen beherakada garrantzitsua islatu zuen, baina kontsumorako kredituak ere moteltzeko joera bizia erakutsi zuen. Halaber, langabeziaren etengabeko gehikuntzak eta higiezinaren arloak nozitu zuen krisi larriak ordaindu ez ziren kredituak oso nabarmen areagotu zituzten, eta horiekin batera berankortasuneko ratioa, 2008ko amaieran %2,07an baldin bazegoen, 2009ko epe berean %2,76ra igoa baitzen. Estaldura orokorreko ratioak ere, ordaindu gabeko kredituak estaltzeko dauden funtsak erakusten baitu, okerrera egin zuen eta %83,88ra jaitsi zen, krisia hasi baino lehen %200etik gora zegoenean.

Kredituen eta gordailuen bilakaera 21. irudia
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Espainako Bankua.

Ekonomiaren egoera txarrak gordailuak lortzea zaildu zuen. Enpresek eta familiek dituzten baliabide urriagoek, ekonomiaren abagunearen ondorioz, eta likidezia hobesteko nahiak gordailu pribatuen hazkunde erritmoa %5,1era arte galgatu zuten, 2006. urtetik inoiz jaso den tasarik apalena baita.

